



César Bona, *Global Teacher Prize* sarirako hautagaia

Gelari bizia ematen dion irakaslea




- **Galder Perez, Fausto antzezlanaz:** «Ziria noraino sartu diguten taula gainean agertzeko beharra genuen»
- **Euskararen ofizialtasuna Uztaritzen.** Estatuari aurre egitea eta herritarrei eragitea helburu
- **Kuba.** Blokeoaren amaieraz zuhur mintzatu zaizkigu Habanako herritarrak
- **Lantoki irekiak.** Espazioa partekatzeak negozioarako sortzen dituen aukerak
- **Net Hurbil.** Zergatik espero den petrolioaren prezioa berriz igotzea

 **argia**
SARIAK
2015

euskarazko
KOMU
NIKAZI
OAREN
SARIAK
urtarilak30
USURBILGO ATXEGA JAUREGIAN

Kazetaritzan eta komunikazioan urtean zehar nabarmendu direnen sari banaketa jarraitzeko aukera izango da arratsaldeko 16:00etatik aurrera

argia.eus-en



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA
WWW.ATXEGAJAUREGIA.COM



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilekiz aitoru eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2015eko otsailaren 1a, 2.447. zenbakia

ASTEKO GAIA

COWORKING Espazioa partekatu ideiak elkarlanean garatzeko. IURE EIZAGIRRE / 4

PERTSONAIA

CÉSAR BONA: «Emateko aukera eskaintzen badiozu norbaiti, bera ere hartzeko prest egongo da».
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 10

GAIK

ZANGOZAKO OINEZ BASOA Zabortege bat berreskuratzeko modu onena. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

INDARKERIAREN AURKAKO ERANTZUNA

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 18

GEZI ZURIA JOSE INAZIO BASTERRETXE POLO / 20

IKASTOLEN IDENTITATEAZ ANDONI MUJICA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Maskaradaren izenean, amen!

JOANES ETXEBARRIA / 20

ERDIKO KAIERA

GALDER PEREZ: «Zu, ni eta denok gara Fausto».

MYRIAM GARZIA / 23

ADAROTS FOLK TALDEA Ezkerraldeko adarraren hotsa.

MYRIAM GARZIA / 26

IHESI BIDUZE IBAIA (NAFARROA BEHEREA)

Bizitzaren harira. ITXARO BORDA / 28

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 32

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34

ALEA KOMIKIA MINTZAGAI Literaturak adina merezi

duelako. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 35

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

LABORARIK PALESTINAN Beste erresistentzia modu bat lurralde okupatuetan. ÁLVARO HILARIO / 39

KUBAKO BLOKEOAREN AMAIERA Habanako espaloi lurmenduak. URKO APAOLAZA AVILA / 42

EUSKARAREN OFIZIALITASUNA UZTARITZEN Legezkoa ez, baina zilegi bai. MIKEL ASURMENDI / 44

GREZIA Zein izango dira Syrizen lehenbiziko neurri ekonomikoak? PELLO ZUBIRIA KAMINO / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Nola ulertu oraingo petrolio merkea: bi hipotesi.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

COWORKING

Espazioa partekatu ideiak elkarlanean garatzeko

Hamar mahaiko gela, pertsona bat mahai bakoitzean Interneterako sarbidea duen ordenagailuarekin lanean, ondoan telefonoa. Ez litzateke arraroa baldin eta bertan diharduen bakoitza enpresari txiki, ekintzaile edo langile independentea izango ez balitz, espazioa partekatzen. Coworking du izena lan eredu honek, eta espazioa partekatzetik harago doa.

| IURE EIZAGIRRE |



Iruñeko Fab Lab Coworking-eko sarrerako guneak erlazioak landu eta lan eremuko isilunearekin hausteko aukera ematen die erabiltzaileei. Irudian, Luis Arrieta (ezkerrean) eta Jose Ignacio Cenoz.

AEBETAKO SAN FRANTZISKON du jatorria *coworking*ak, han jarri zuten-eta mota honetako lehen espazioa 2009an. Mundu osora hedatu da ordutik eta gurean ere egin du lekua azken urteetan. Horren erakusle Coworking Spain elkarteak 2013an egindako inkesta batean Iruñea sartu izana *coworking* asko zituzten hirien artean.

Optimus Coworking-ak, adibidez, urte horretan ireki zituen ateak, baina urtebeteren buruan txiki geratu zen eta lekuz aldatzearekin batera jauzi kualitatiboa egin zuen iaz. Egun Iruñeko erdigunean dago eta Fab Lab Coworking du izena. Jose Ignacio Cenozek bertan egiten du lan, berak sortutako Crealider enpresan. 2010ean eratu zuen enpresa eta

Leku irekiak dira coworkingak, bai itxuran bai harremanetan, eta gutxien espero denean sor daitezke norbera garatzen ari den lanaren inguruko elkarrizketak

*coworking*era heldu arte etxetik aritzen zen: “Lan giroa falta nuen, ni bezala bere enpresa eta marka aurrera ateratzeko borrokan ziharduena jendea. *Coworking*ean zure bide berean doan jendea duzu, sinergiak topatzen dituzu, elkarlana, kontaktuak partekatzea, bezeroak, erreferentziak eta informazio praktikoa”. Bere arazo eta poz berdinak izango dituen jendea inguruan izatea asko baloratzen du.

“Hemen egiten dudana lana etxean ere egin nezakeen, baina giroak bereganatu egiten zaitu. Albokoa haserretzen denean kontatu egiten du eta arrakasta duenean ere bai. Zuk ere izan nahi duzu kontatzeko zerbait ona”, dio Agustin Cabanillasek, Zarauzko Don Poliza enpresaren arduradunak. Kontzentrazioa lortzeaz gain, alde ekonomikoa azpimarratzen du, izan ere, herrian bulego bat alokatu beharko balu askoz gehiago ordaindu beharko luke. “Ekintzaile izan nahi baduzu, hasieran ezin duzu gastu askorik izan, jendeak ezagutu, zure proiektuak aurrera egingo duela ikusi eta martxan jarri arte bi urte pasa daitezke eta ezin duzu hilerio 1.800 euroko gastua egin”. Aitortzen du garestia izan balitz ez litzatekeela *coworking*eko lan giroan murgilduko, baina aurrean bi urte egingo ditu Zarauzko Bulegoak-en eta hilean 90 euro inguru ordaintzen ditu.

Elkarlanerako guneak

Leku irekiak dira *coworking*ak, bai itxuran bai harremanetan, eta gutxien espero denean sor daitezke norbera garatzen ari den lanaren inguruko elkarrizketak. Horren lekuko izan gara Fab Lab Coworking-en, Cenozean hitzordua egin eta hogeita minuturen bueltan, garatzen ari diren proiektuen berri emateko espazioko beste bi kide elkarrizketara batu zaizkigunean. Pentsa liteke, beraz, euren artean ere naturaltasun berarekin sortzen direla harremanak, baita sinergiak ere.

“Espaziokoak elkarrekin lehian ez aritzen saiatzen gara. Enpresa batek izan dezakeen beharra *coworking*eko beste profesional batek ase dezake”, azaldu du Cenoze. Eta kidea da harreman hori bideratzen duena: “Ni ez naiz aditua kontabilitatean eta bezero batek esaten badit arlo horretaz arduratzeko norbait behar duela, hona etorri eta hemen gai horiek kudeatzen dizkigun pertsona aurkeztuko dio-

dala esaten diot. Egutero berarekin egiten dut lan eta badakit zertan dabilen, konfiantza dut beragan”.

Luis Arrieta Fab Lab Coworking-eko kudeatzaile eta erabiltzailea harago doa sinergiaz jardutean: “Lana ulertzeko modua aldatu eta bezero batek lan-kate bat sor dezan ahalegintzen gara. Adibidez, nik optika batentzat proiektu bat garatzen badut, obraren zuzendaritza Coworkingeko aparejadoreak egin dezala, eta bezeroa gurera ekarri dugunez, Cenoze sare sozialen kudeaketa azter diezaiola eta beste kide bat kontabilitateaz arduratu dadila. Batzuetan lortzen dugu eta besteetan ez”.

Zenbaitetan espazio berean lanean ari direnen artean sortzen dira proiektu berriak. Norbaitek ideia bat badu, ondokoak hori osatzeko falta dena eman dezakeela azaldu du Cenoze: “Abiapuntu horretatik orain garatzen ari diren negozio berriak sortu dira hemen. Eta negozio orokorragoen ideiak daude, guztion artean enpresa edo negozio ildo berri bat sortu ahal izateko”.

Kanpora begira

Elkarrekin erlazionatu eta sareak zabaltzeko hainbat ekintza antolatzen dituzte ereduotan, hala nola, gosariak eta euren proiektuen aurkezpenak. Kanpora begirakoak ere lantzen dituzte eta bertako kideen kontaktuez baliatzen dira horretarako. Ekintza horiek egitasmo berrien sorburu izan daitezke, Fab Lab Coworkingean eratzera doazen ingeleseko elkarrizketa taldeak kasu: “Ingeleseko akademia duen Cenozen kontaktu batek proposatu zigun iaz eta berak ezin izan zuen aurrera eramanez taldea, baina orain beste batekin egingo dugu”. Irakasleak ingeleseko akademiako elkarrizketa taldeak Coworkingera eramango ditu eta trukean espazioko kideek elkarrizketa talde bat osatuko dute. Gauza bera egingo dute Nafarroako Ingenieria Sin Fronteras GKEaren kontsumo taldearekin ere. Lokalik gabe geratu dira eta kontsumo taldea Coworkingetik antolatzeko proposatu diete, batetik kontsumo jasangarriagoa ezartzeko eta bestetik espazioko erabiltzaileek otarrak zuzenean jasotzeko aukera izan dezaten. “Horrelako

“Coworkingean zure bide berean doan jendea duzu, sinergiak topatzen dituzu, elkarlana, kontaktuak, bezeroak, erreferentziak eta informazio praktikoa”

Jose Ignacio Ceno

COWORKING



Ezkerrean, Amaia Aragones; Movimiento Es Salud enpresaren bulegotzat erabiltzen du *coworking*a. Jose Ignacio Cenoze (eskuinean) etxean ekin zion enpresentzako sare sozialak kudeatzeko eta online komunikazioko Crealider proiektuari, baina lan giroa faltan nabari zuen.

proiektuek balio erantsia ematen diote espazioari”, uste du Arrietak.

Hala ere, hitzaldiak izaten dira *coworking*ak ezagutzera emateko ekitaldi ohikoena. Iruñeko gunean, esaterako, Esteban Morras Nafarroako Energia Hidroelektrikoa korporazioko –egungo Acciona-Energia– sortzailea izan dute duela egun gutxi enpresa nafarraren sorreraz, ekintzailetzaz eta energia berriktagarrien beharraz hitz egiten. Hitzaldiak irekiak izaten dira eta Morrased jende ugari bildu zuen.

Ekitaldi ireki horietako bati esker ezagutu zuen Amaia Aragonesek Bilbao Eutokia *coworking*a: “Ikastaro bat egin nuen eta nire kabuz lanean hasi behar nuenean planteamenduak konbentzitu egin ninduen, sorkuntzara bultzatzen duelako eta giro ona dagoe-lako”.

Denbora gutxi eman du Movimiento Es Salud enpresa Boluetako espaziotik zuzen-

tzen, 2013an sortu bazuen ere, irailean hartutako amatasun baja tarteko lanera itzuli berria delako. Sinergiezt galdetuta, adierazi du oinarrikoen topatu duela, enpresa eratzeko administrazio kontuetan, baina zenbait zailtasun ere ezagutu ditu: “Honelako lekuetan sinergiak bilatzen dituzu, baina teknologia arloan aritzen ez bazara, bizi garen garaiotan, zaila da”. Heldu berri hitzaldi eta mintegietara joateko aholkatu zioten, jendea ezagutzen zelako, baina “berrikuntzaren munduaz hizketan hasi eta zertaz ari ziren banekiela ziurtat ematen zuten”. Berria izaki, lotsa ematen zion ez zuela ulertzen esateak, bera bezala osasun arloan aritzen den beste ekintzaile batek egoera berean zegoela adierazi zuen arte. Harrezkero, lotsa galdu du eta azken urtean asko ikasi duela aitortu digu.

Bere aurtengo egitasmoen artean dago ekintzak antolatu eta hasieratik ezagutzen dituen Bilbao Eutokiako bilera gela horiek



San Nikolas IKASTOLA



IKASMAILAK (1-16 urte)

- Haurtzaindegia
- HH, LH eta DBH
- Gela Bereziak: txikienezko logelak, psikomotritzitatea, liburutegia, Mundi Lab, laborategia, teknologia, musika, informatika - ADSL (ekipo guztiak internetara konektatuta)

ZERBITZUAK

- Haurtzaindegia laborala (2-5urte): 07.30-18.00
- Jantokia
- Autobusa (Getxo, Berango, Urduliz, Leioa, Areeta...)
- Aniztasunari arreta berezia: psikologia, auxiliarrak, terapeutika irakasleak, orientatzailea...
- Liburutegia gidatua
- Eskolazkanpokoak: ingelesa, pianoa, solfeo, baleta, trikitixa, korala, kirolak...
- Udako eskaintzak: haurtzaindegia, egonaldia, ingelesa ikastaroak...

Arene Azpi 15 · GETXO (Bizkaia) · T 944 305 478 · F 944 305 477 · ikastola@sanikolas.net



Bilbao Eutokiako *coworking*eko gune irekian bulegoko ohiko zerbitzuak dituzte eskura, baita urratsak emateko animo mezuak ere lurrean (ezkerreko argazkian). *Coworking* txiki batetik zuzentzen du Agustin Cabanillasek (eskuinean) Don Poliza aseguru-artekaritzako plataforma eta kidearen bidez ere lana heltzen zaiola ziurtatzen du".

enpresen aurrean ezagutzera emateko erabiltzea.

Zertan aritzen dira?

Amaia Aragoñesen pertzepzioa egiazkoa da: *coworking*a, edo hobe esanda lan eredu honek ari diren langileak teknologiararen munduarekin lotuta daude sarri. Cenzoek dioenez, "halako lekuetan gabiltzanok ohituta gaude teknologiarekin lan egitera, *Smartphone*-a bezalako gailu sinpleetatik hasi eta errealitate areagoturaino". Berak ere teknologia berriei lotuta egiten du lan, Crealider enpresentzako sare sozialak kudeatzeaz eta online komunikazioaz arduratzen baita.

Bilboko *coworking*en nondik norakoak jasotzen dituen *Coworkalari* dokumentalean Paula Garaialde Bilbao Koworking-eko kudeatzaileak esana da sektore sortzaileenak tribuan bizi daitezkeela eta beste sektore batzuek leku aberatsagoetan behar dutela eurentzako

espazioa. "Hori da konpondu beharko genukeen desberdintasunetako bat. Zergatik ez dugu hemen banketxeen mundutik etorri den eta zerbaitek egiteko enpresa txiki bat sortu duen inor? Edo abokaturik?", galdetzen du. Egon, badaude, abokatuak bai bederen, baina ez agian diseinatzaile, programatzaile, arkitekto, argazkilaria edo kazetarien proportzio berean.

Cabanillas aseguruetan dabil eta hau ere ez da ohiko sektorea *coworking*etan. 25 urteko esperientzia du aseguru-artekaritzan, baina Don Polizaren bitartez zerbitzu berria eskaintzen du: bezeroak seguruaren adar teknikoetan espezializatutako aseguru-artekaritzara bideratzeko interneteko plataforma. "Adibidez, badago karabanak eta autokarabanak aseguratzeko espezializatu den aseguru-artekaritza bat. Akordio batera heldu da aseguru-etxe batekin produktu horiek aseguratzeko, denbora jakin batean ibilgailu



Coworkingetik laborategira

IRUÑEKO Fab Lab Coworkingak elkarlan eta fabrikazio digitaleko laborategiaren kontzeptuak batu zituen iaz *coworking* teknologikoa gauzatzeko asmoz. Azken hilabeteetan ahalegin berezia egin dute laborategia garatzeko, lan asko duten arren egiteke. Fab Lab-aren bideragarritasun txostena garatzen ari den Salvador Gomezek kontatu digunez, oraingo arkitarkto eta aparejadoreek maketak egiteko

erabili dute: “Asmoa da makinak profesional eta enpresen esku jartzea beraien prototipoak eta I+Ga hemen gauzatu ditzaten, enpresetan makinak erosi beharrik izan gabe”. Euren eskura izango dituzte arotzeria eta elektronikako oinarritzko lanabesak, plotterra eta 3Dko inprimagailua eta eskanerra, besteak beste. Gainera, Fab Laben sarean dagoenez, beste espazio batzuetako makinak erabili eta

makinen sare bat osatu daiteke. Sinergiak ere sortuko dira honetan dihardutenen artean: “Demagun, enpresa batek hemen egiten dituela bere prototipoak eta beste gazte bat antzeko proiektu bat garatzen ari dela. Sartu-irtenean harremana sortuko da eta enpresa horrek norbait kontratatu behar badu, gazte horrengana joko du berarekin hitz egin eta kafea hartzen dutelako”.



3Dko inprimagailua da Fab Labean dituzten tresnetako bat eta Salvador Gomez honekin aritzen da lanean.

kopuru jakin bat bideratuko dizkiola agintzen dio eta trukean prezio merkeagoa lortzen dute aseguruetan. Nik, espezializatutako aseguru-artekaritza horrekin elkarlan akordio bat lortu eta nigana karabana edo autokarabana aseguratzera etortzen direnak haiengana bideratzen ditut. Badakit eurek dutela preziorik onena eta ez dut denborarik galtzen nora bideratu pentsatzen”. Negozioa martxan jarri eta urte eta erdira Hegoamerikarako jauzia egin du, sareak ematen dizkion aukerak aprobetxatuta.

Coworkinga norberaren beharretara egokitu behar da eta Aragonesez, esaterako, bere osasun enpresaren bulegotzat erabiltzen du espazioa: “Bezerekin hitz egiteko edo elkarriketarako lekua eskaintzen dit”.

Enpresetan osasun programak txertatzea du xede, “oso garrantzitsua delako ariketa fisikoa eta ohitura onak egunerokoan sartzea, langileek bizi-kalitate hobea izan dezaten eta ondorioz errendimendua ere hobea izan dadin”.

Zerbitzuak

Aragonesek lana burutzeko nahikoak ditu Bilbao Eutokiak bere gune irekian eskaintzen dizkion bulegoko ohiko zerbitzuak: mahaia, Internetarako sarbidea, telefonoa, behar diren izapideak egiteko postakutxa, bilera gela erabiltzeko aukera... Gainera, aholkularitza juridiko eta ekonomikoa dute, eta bertako koordinatzaileak beste espazioetakoekin harremana bideratzen du zalantzak argitzeko.

**“Akatsa da horrelako leku
batetik alde egitea, baita dirua
edukita ere. Lehengo lan
egiteko modua amaitu da”**

Agustin Cabanillas

Coworking bakoitzak, ordea, bestelako zerbitzuak izan ditzake bere ezaugarrien edo espezializazioaren arabera, telebista platoak edo 3D inprimagailuak, adibidez.

Erabiliko den ordu kopurura egokitutako tarifak eskaintzen dituzte: lan jardun osokoak edo jardun erdikoak. Hilean 90 eta 250 euro artean kosta daiteke gutxi gorabehera. Aukerak zabaltzen ari dira eta ondorioz, egun edo ordu batzuetarako lekua har daiteke, baita bilera gelak alokatu ere.

Prezioak eta proiektuak modu ezberdinean garatzeko aukerak erakartzen ditu *coworking*etako kide asko, zenbaitek egitasmoak amaitzearekin batera uzten dute espazioa eta beste batzuek negozioa hazitakoan. Aragonesek asmo hori du: “Epe luzera neure lokala eduki nahi dut eta kirol kudeaketaren eta osasun programen administrazioa eraman. Zentroan pilates, muskulu-heziketa eta yoga

eskaini nahiko nituzke. Eta oso handia balitz, dantzako profesionalak hezteko gune txiki bat izan nahiko nuke”.

Cenozek izan du bere negozioa hedatu eta kolaboratzaileraren bat kontratatatzeko aukera, baina *coworking*etik alde egitea baino, lan taldea Fab Lab Coworkingen sartzeara pentsatu zuen: “Mota honetako guneek kolaboratzaile bat, bi edo hiruarekin bertan sartzeko malgutasuna eskaintzen dute”.

Cabanillasek harago begiratu eta etorkizuna halako guneetan eraikiko dela uste du: “Akatsa da horrelako leku batetik alde egitea, baita dirua edukita ere. Enpresak berriro martxan hasten direnean, dena aldatuta egongo da, lehengo lan egiteko modua amaitu da. Jendea nekatuta dago zain egoteaz eta bere kabuz ekiten dio”. Herri bateko *coworking*ean dago bera, eta bi pertsonak soilik osatzen dute espazioa, baina negozio zentro batean egonda, gainerako bulegoetako jendearekin *coworking*ekoaren antzeko harremana sortzen dela azaldu du. “Inoiz ez nukeen pentsatuko Zarautzen horrelako aukerarik izango nuenik, baina aurkitu nuenean niretzako egina zegoela pentsatu nuen. Nik beti esaten dut herrian dagoen gauzarik newyorktarrena dela hau”. ■




GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola, herri eta auzo txikiak bizirik!

ABALTZISKETA	ALTZO	EZKIO - ITSASO	OIKIA
ADUNA	ANGIOZAR	GABIRIA	OLABERRIA
AGINAGA	ARROA	IGELDO	ZERAIN
AIZARNA	BERROBI	IKAZTEGIETA	ZIZURKIL
AIZARNAZABAL	BIDANIA - GOIATZ	ITSASONDO	ZUBIETA
ALBIZTUR	EREÑOTZU	LARRAUL	
ALKIZA	ERREZIL	LIZARTZA	

WWW.ESKOLATXIKIAK.ORG

«Emateko aukera eskaintzen badiozu norbaiti, bera ere hartzeko prest egongo da»

127 herrialdetako 5.000 hautagai baino gehiagoren artean, Global Teacher Prize sari prestigiotsurako 50 finalistetako bat da César Bona. Ez du hezkuntzari buruzko diskurtso ponposorik, ezta behar ere: eguneroko lanaren adierazgarri, 11 urteko ikasleek eurek egindako Kopa oparitu berri diote (aldizkariaren azalean eta ondoko argazkian ageri den Kopa), haientzat irakasle onena delako César.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Dani Blanco

Zer nolako hezkuntza jaso zenuen haurtzaroan? Egun zaren irakaslea izateko balio izan al zizun?

Txikitan oso lotsatia nintzen eta irakasleak

galderaren bat egiten zuenean, eskua altxatu ordez ondokoari esaten nion erantzuna. Ez dut nahi eskolan ditudan hurrei halakoak gertatzerik: lotsa eta beldurra ez daitezela oztopo izan emozioak, sentimenduak, pentsamenduak edo argudioak adierazteko; horma hori gainditzeko gai izan daitezela da nire helburua. Etxean berriz, aita arotza nuen eta lagundu egiten nion, baina aspertu egiten nintzen, berak eskatzen zizkidan lantresnak eskura ematea nuelako zeregin bakarra. Nire haurrek inplikazio falta hori sentitzerik ere ez dut nahi, engaiatu daitezela nahi dut, ikastearekin edo gauzak aldatzearekin, aurrera eramaten dituzten proiektuetan inplikatu daitezela.

Ikasgela bakoitza, haur bakoitza mundu bat da. Nola lortzen da haurrak duen onena ateratzea?

Oso garrantzitsua da testuingurua ezagutzea, herri, hiri, auzo, ikastetxe, ikasgela... horretako haurrek zer egiten duten, nola hobetu dezaketen inguruan dutena. Ikasgela horretako interesak eta kezak hartu behar dira kontuan. Eta norbanakoari begira,

Garrantzitsua da denok funtzio bat izatea gizartean, kasu honetan ikasgela den mikro-gizartean, eta elkarrekin, bere martxa duen engranajea osatu dugu

denoi gustatzen zaigu inportantea edo baloratua sentitzea, hori lortzea da lehenengo urratsa. Talde berri batera iristen naizenean

haurrei beti esaten diet: “Irakaslea naiz, baina nik ez dakit dena, zuek ere irakatsi diezadakezue”. Dituzten jakintzen eta afizioen berri ematen dute, guztiokin elkarbanatzen dituzte, eta ematen duzunean, zu ere prest zaude besteen irakaspenak jasotzeko. Zentzu horretan, eskoletako programazioak irekia izan beharko luke: “Gaur 9etan sartu

eta hau eta hau emango dut” pentsatu beharrean, “zuek zer irakatsi diezadakezue? Zer duzue eskaintzeko?” galdegin beharko genuke.

NORTASUN AGIRIA

César Bona García, 1972an Ainzón herrian jaioa, Zaragozan (Aragoi). Ingeles Filologian lizentziatu ostean, Magisteritza ikasi zuen. Hamabost urte daramatza irakaskuntzan, horietatik zazpi eskola publikoan. Varkeys Fundazioak antolatzen duen –eta milioi bat dolarreko ordaina duen– Global Teacher Prize sarira aurkeztu zuen lagun batek –Irakasleen Nobel saritzat hartzen dena– eta finalista da, mundu osoko beste 49 hautagairekin batera.



CÉSAR BONA

Baina arreata pertsonalizatua lortu al daiteke 30 ikasleko geletan?

Begira, guk rola banatzen eta txandakatzen ditugu gelan [ikusi 13. orriko irudia], eta Matxinatuen Burua deitzen duguna da niretzat rol garrantzitsuenetakoa: beste haurren kexak eta iradokizunak bideratzeaz arduratzen da. Izenik jarri gabe ikasleetako batek oharra idatziko du jolas-orduan gertatu zaionaz, ikaskideak esan dion zerbait buruz edo ikasgaia nola ematen dudan gustuko ez duela azalduz. Matxinatuen Buruak ohar anonimo hauek emango dizkit ondoren, eta oharretan adierazi didatena hobetzen saiatuko naiz. Euren heziketan parte hartzen dute haurrek, hala sentitzen dute, eta gustura datoz eskolara. 30 ikasleko gela dela? Seikoak eta hogeitakakoak egokitu zaizkit, eta denek partekatzen dute zerbait: emozioa. Askoz gehiago landu beharko genuke emozioa hezkuntzan.

Matxinatuen Burua, diozu. Beste zein rol banatzen dituzue gelan? Zein helbururekin?

Haurrek gutxi gorabehera hilero txandakatzen dituzte rola: hala nola, Birziklatzearen Buruak ditugu (ingurumena errespetatzera animatzen dituzte gainerakoak eta birziklatzea ondo egin dadila dute helburu); Altruisten Zerrenda Zuriaren Arduraduna dugu (ikasgaiaren batean ondo dabilenak izena eman dezake, eta kontrara, ikasgaiaren batean zailtasuna duenak, berak hala erabakita, zerrendako arduradunarekin hitz egin dezake altruista bat bilatu eta ikasgai horretan elkarren ondoan esertzeko, laguntzeko... eta elkar estimulatzeko); Gehiegi Hitz Egin Dutenen Zerrenda Beltzaren Arduraduna ere badaukagu, hitz egiten ari diren beste ikaskideak ez eteten eta errespetatzen ikasteko (ni neu ere kontrolatzen nau); asko hitz egiteagatik puntuak galdu dituenak berreskuratu ditzake, Abokatuarekin hitz egin ez eta lan-txoren bat egin; Kazetari Batzordean berri bitxiak ekartzera animatzen dute jendea, gero

Lehia

“Lehiakortasuna inportantea dela esaten didatenean erantzuten dut norbera hobetzen joatea dela inportantea. Gurasoak umeen notak konparatzen hastea akatsa da, pentsatu ezazu ea zer egin dezakezun zure seme-alaba ahalegindu dadin bere mailan hobetzen joateko, beragatik, ez gurasoen desiren proiektzioa den exijentziekiko. Gure gelan, Altruisten Zerrenda moduko ekimenei esker, zertan eta nor lagundu dezakeen bihurtzen da haurraren erronketako bat, eta ez lehia eta bestea zapaltzea”.

hemen komentatzeko; Liburuzainak daude, irakurketa defendatzen... Garrantzitsua da denok funtzio bat izatea gizartean, kasu honetan ikasgela den mikro-gizartean, eta funtzio bakoitzaren arduraduna errespetatzea. Elkarrekin, bere martxa duen engranajea osatu dugu. Rola aldatzen joateak enpatia lantzeko aukera ere ematen du.

Nolakoa da egun bat zure gelan?

Aipu-hartzaileak (rol hori ere badaukagu) aipu bat aurkezten digu lehen orduan eta horri buruz aritzen gara. Gero, egunaren eta ikasgaiaren arabera, oso ezberdina da jarduna. Jakin-mina lantzen dugu, informazioa biltzen eta baloratzen ikasteko ariketak egiten ditugu, edota publiko aurrean lotsa galdu eta hitz egitea praktikatzeko mahai gainera igo eta euren kontinenteaz mintzatu behar dute [kontinenteka daude banatuta gelan, ikusi alboko irudia]. Gaur oso gauza polita gertatu da: Mohammed oso lotsatia da, baina berak hitz egin nahi zuela esan digu, mahai gainera igo da eta denoi zuzendu zaigu; bukaeran txalotu egin dute ikaskideek, badakitelako ez dela erraza, batez ere lotsatia bazara, eta bereztat inportantea izan da kontatu diguna besteek interesez jarraitzea eta aintzat hartzea. Asteazkenetan esaterako, Istorio Surrealistak ditugu: Belaunak-Alderantziz-Tolesteko-Gaitasun-Bitxia-Zuen-Eta-Hanketako-Behatz-Artean-Kaktusak-Ezkutatzen-Zituen-Ibilera-Zaharkituko-Txita-Jaun-Astakirtenaren-Istorio-Aparta moduko titular xeble batetik abiatu, hiztegitik ausaz zortzi-bederatzi hitz hautatu eta istorioa sortzen eta eraikitzen joaten gara denon artean. Ondo pasatzea eta ahalegintzea ez daude lehian.

Hau guztia begi onez ikusten dute gurasoek?

Ibilbide bat eta aitorpen bat lortu izanak lagundu egiten du gurasoekiko harremanean, baina egia da kosta egin zaidala. Leku askotan aztoratu egiten ziren: “Baina ez dute testu-



Beasaingo Ikastola
HERRI ONURAKO KOOPERATIBA

Matrikula kanpaina. Aurkezpenak:

Urtarrilak 31: **ATEAK ZABALIK**

12:00 euskaraz - 12:30 gazteleraz

Otsailak 2: **Ikastolaren Hezkuntza Proiektua**

16:00 euskaraz, 18:00 gazteleraz

Berritzailea. Eleanitza. Euskalduna... Gaurkoan biharko

Urbialde 2. Beasain. Tel./Faxa: 943 88 96 17 | www.beasaingoikastola.eus · beasain@ikastola.net



Horma-irudia

Hiru zatitan dago bereizita: "Zoriontzen dut" "Proposatzen dut", "Kritikatzen dut".

Kazetari Batzordea

Albiste bitxiak jasotzen dituzte.

Liburuzainak

Irakurketaren defentsa egiten dute.

Birziklatzearen Buruak

Ingurumena errespetatzera animatzen dute eta egoki birzikla dadin zaintzen dute.

Gehiegi Hitz Egiten Dutenen Zerrenda Beltzaren Arduraduna

Denek ikaskideak errespetatu ditzatela du zeregin.

Matxinatuen burua

Modu anonimoz, haurren kezak eta iradokizunak jasotzeaz/bideratzeaz arduratzen da.

Abokatuaren bulegoa

Gehiegi hitz egiteagatik galdutako puntuak berreskuratzeko bitartekari lanak egiten ditu ikaslearen eta irakaslearen artean.

Mahai-taldeak

Bost kontinentetan banatzen dira: Nueva Zapatilla, Panizoland, ierras Medias de Rancia, Lechugandia del Sur eta Mundo Viejuno. Hilero kontinentez aldatzen dute eta kontinenteari buruz sortu duena opari ematen dio hurrengo taldeari.

Altruisten Zerrenda Zuriaren Arduraduna

Ikasgai jakinetan zailtasunak dituzten eta ondo dabilzan haurren arteko elkarlana bideratzen du.

César Bonaren
gelako ekosisteman
rol bakoitzak
bere txokoa du



liburua erabili!" edo "eta gramatika? Ortografia?". "Lasai", erantzuten nien nik, "beste modu batera agian ikasiko ez lituzketen gauzak ikasten ari dira zuen seme-alabak". Eta ikasturte bukaerarako, jarrera aldatu ohi dute gurasoek. Ikastetxe batean, ikasturte amaieran, eskutitzak idatzi zizkidaten gurasoek: "Nire alaba askoz autonomoagoa da", "nire semeak emozioak adierazteko zuen lotsa galdu du", eta halakoak. Baloreak ikasten ditugu eskolan.

Irakurri dizudanez, enpatia, ikasleen parte-hartzea, irudimena, sormena, jakin-mina, senti-

bilitatea eta errespetua dituzu oinarri. Horiek dira heziketaren gakoak?

Nire ustez bai. Horiei gehituko nieke jarrera, baita irakasle bezala ere: irakasle batek asko jakin dezake, baina jarrerarik ez badauka... Nola animatuko duzu haurren jakin-mina, zuk jakin-nahirik ez baduzu? Nola estimatuko duzu sormena, ez baduzu ikertzeko edo sortzeko gogorik? Eta diozun moduan, enpatia eta sentsibilitatea ere azpimarratu ohi ditut, eskola guztietan kontuan hartu beharreko ezinbestekoak iruditzen zaizkit, modu horretan hurkoa, animaliak, ingurumena...

Pertsonaren osotasuna, erdigune



136 ikastetxe
8.000 hezitzaile
90.000 familia

Konpromiso partekatua

www.kristaueskola.eus



kristau•eskola



GALDE SHORTA

Denok maila berean

errespetatuko dituzten helduak izango direlako. Haurrak, gainera, ez dira soilik etorkizuneko helduak, orainaren biztanleak ere badira, eta horregatik parte hartu behar dute gizartean.

Global Teacher Prize sarirako hainbat proiektu eta esperientzia hartu dituzte kontuan. Tartean, maila sozio-ekonomiko baxuko "ikasgela gatazkatsu" batean egindako lana.

Bai, ikastetxe hauek "jardue-ra zaileko" eufemismoaz izendatu ohi dituzte, baina erronka gisa definituko nituzke nik. Testuingurua begiratu behar duzu, umeei sarri ez baitute egoera erraza bizi, eta aski da euren lekuan jartzea. Javi adibidez lagun handia dut oraindik eta han ezagutu nuen, duela sei urte; ijitoa da, kajoia jotzen du eta niri ere kajoia jotzen irakatsiko al zidan galdetu nion; eskola ordua baino ordubete lehenago geratzen ginen horretarako. Konexio hori duzunean, norbaiti emateko aukera eskaintzen diozunean, bera ere hartzeko prest egongo da, jarrera kontua da. Irakurtzen ikasteko antzezlan berezi bat ere egin genuen, eta antzezlan horrek ikasleengan sortu zuen konplizitateak eta piztu zuen grinak eskolara gustura etortzea eragin zuen.

LOMCE. Laguntza, altruismoa eta lankidetzaz sustatzea gustatuko litzaidake, lehiakortasuna beharrean.

Testu-liburuak. Agian astean behin edo hamabostean behin erabiliko ditugu, eta erreferentzia gisa balio dezakete, baina ez dira irakasleon gida.

Ikaslea. Ohorea da haiengandik ikasi ahal izatea.

Irakaslea. Haurrek eskaintzen duten sormena egunero bizi ahal izateko luxua.

Autoritatea. Errespetutik lortzen da, eta errespetua ez da inposatzen, irabazi egiten da, denok maila berean jarri.

Ondoren, herri txiki bateko eskolan, *La importancia de llamarse Applewhite* filma errodatu zenuten, sari ugari jaso dituen.

Buretan izan zen hori, 200 biztanle inguruko herrian, eta 4 eta 12 urte arteko sei haur nituen. Pelikula mutua egin genuen, ikasleek istorioaren garaiko gertaerak eta pertsonaiak ikertu zituzten, eta antzezpenaren aitzakian emozioak nola adierazi landu genuen, hitzez eta keinu bidez. Sei ume baino ez ziren

eta horietako bik harreman txarra zuten, familien arteko desadostasunak medio. Bada, elkar maite zuten bi protagonisten rolean jarri nituen, eta ondo atera zen: informazioa bilatzea, jantziak prestatzea eta halakoak familiek elkarrekin egin behar zuten, eta orain oso ondo eramaten dira bi familiak.

Buretan bi urtez izan nintzen eta beste proiektu bat ere egin genuen: *Sé* dokumentala. Herriaren altxorretako bat adineko jendea izanik (gazte askok herritik alde egiten du gaur egun), umeei aitona-amonak elkarrizketatu zituzten dokumentalerako, haien bizipenak eta nahiak jaso zituzten. Pelikula estreinatu genuen egunean, 200 biztanleko herrian 400 ikuslek bete zuten aretoa! Omenaldi ederra izan zen aitona-amonak haientzat.

Eta 2010ean, El Cuarto Hocio animaliak babesteko elkarte birtuala sortu zuten zure ikasleek...

Muel herrian nintzen irakasle eta zirkoa iritsi zen herrira. Umeak pozik zeuden eta ohiko moduan, ikertzeko esan nien, zirkoen informazioa bilatzeko, gurasoei galdetzeko... Hurrengo egunean, zirkoari buruzko eztabaidan ondorioztatu zuten animaliek ez zutela hain bizitza alaia zirkoan, eta horrela jaio zen El Cuarto Hocio elkarte. Deskubritu zutena gainerako ikasgeletan kontatu zuten, lehen mailako haurretatik hasi eta seigarren mailaraino. Ondoren, haurrek sinaturiko eskutitza aurkeztu zioten alkateari, eta ordutik animaliarik gabeko zirkoak bakarrik onartzen dituen herria da Muel. Elkarte birtualari eta haurrek bertan idatzitako iritzi, bitxikeri eta iruzkinei esker, eztabaida beste lekuetara zabaldu zen eta nazioarteko ikastetxeetako umeak elkartu ziren ekimenera. Beste behin, parte hartzen dutela eta kontuan hartuak izan direla sentitu dute haurrek, inplikatu egin dira, eta gizartea aldatzeko eta animalien eskubideen alde egiteko eredu izan dira.

Zein da proiektu horien guztien arrakastarako sekretua?

Parte hartzeko aukera ematean datza, helduok maiz atrofiatuta daukagun irudimena bizi-bizi dutelako haurrek, eta aintzat hartzeko moduko ideia zoragarriak dituzte. Haurren interes eta nahiei erreparatzea garrantzitsua da, umeak inplikatzeko —modu horretan lortuko dutelako beste pertsona batzuk ere “kutsatzea”—, eta azkenik, inportante eta harro sentitzea.

Eta zu zein lorpenez zaude harroen?

Ume bakoitza mundu bat da eta keinu txiki eta handi guztiek dute balioa. Mohammedek gaur egin duena lorpen handia da beretzat, izugarri pozik joan da etxera. Ivánek arazoa zuen hizkia ahoskatzeko, ba Haurren

Mohammed oso lotsatia da, baina berak hitz egin nahi zuela esan digu gaur; bukaeran txalotu egin dute ikaskideek eta beretzat inportantea izan da kontatu diguna besteek aintzat hartzea

Eskubideen Aldeko Munduko Kongresu-aurrera lagundu ninduen, zazpi bat minutuz hitz egin zuen 400 pertsonaren aurrean eta bukaeran 400ak altxatu eta txalo jo zioten. Mónica negar egiten zuen emozioez hitz egiten genuen bakoitzean, hori bideratzeko tresnak eman zitzaizkion, eta gai izan zen 300 lagun

aurrera hitz egiteko, Aragoiko Ingurumenaren Sarian. Bi haur adiskidetzeko lorpena da, herri oso bat bere zaharrak txalotzen ikustea, kajoia jotzen duen Javirekin gaur egun laguntasuna mantentzea...

Aurkeztu diguzun hezkuntza ereduak balio du urte gehiago dituzten haur eta gazteekin ari diren irakasleentzat?

Lehen Hezkuntzako haurrekin hasi aurretik, adin guztietako gazteekin aritu nintzen, baita Batxillerrean ere, eta egia da institutueta sistema itxiagoa dela, badirudiela sakrilegioa dela txikiagoekin egiten ditugun asanbladak eta talde ariketak egitea, baina bat-batean unibertsitate

iritsi eta publiko aurrean hitz eginarazten dizute, eta shock modukoa da ikasleentzat. Bigarren Hezkuntzan ere aldatu eta hobetu beharreko asko dagoela, alegia. Gainera, alferrikakoa da Lehen Hezkuntzan aldaketa metodologikoetan sakontzea, gero Bigarren Hezkuntzako hormarekin talka egingo badugu.

Baina balore eta kompetentziak lantzeko nahia batetik, azterketen eta gaitegien eredu zurruna bestetik, oreka erraz bilatzen du irakasleak ala frustrazioa gertu du bide berritzaileak urratu nahi dituenak?

Egia da, frustrazio handia dago, sistemak ez dizulako uzten egin nahiko zenituzkeen gauza asko egiten, gurasoak ere sarri ez dira fio, eta nik batzuetan pausoa ematea erabaki dut sine-tsita nengoelako beharrezkoa zela ikasleentzat, baina ez da beti samurra izan, iritsi eta haurrak mahai gainean hizketan jartzea bezain sinplea ez da, arriskatu behar izan dut. Eskema zaharretatik ateratzen saiatu eta amore ematen bukatu daiteke, irakasleek maiz ez dugulako laguntzarik, ez dugu motibaziorik, errazagoa da testu-liburua jarraituz ikasgaia eman eta kobratzea, eta horregatik seguru egon behar duzu, zure horretan mantendu. Pribilegiatua naiz sari honetarako hautagai naizelako, eta sariak balio behar luke konturatzeko hezkuntza ulertzeko era hau aintzat hartzeko modukoa dela. ■



Irakasleak ez daki dena

“Eztabaidatzea eta iritzi propioa garatzea garrantzitsua da, denek diotenarekin ados ez badaude adierazi ahal izatea, baita irakaslearekin bat etortzen ez direnean ere. Urtetan gidatu gaituen eskema izan da irakasleak dena dakiela, eta hori aldatzeko ordua da. ‘Zergatik egiten du hotz handiagoo poloetan?’ galdetu zidaten lehengo egunean ikasleek. Ikertzeko esan nien eta informazioa bildu ostean kontatu zidaten Hego Poloan hotz handiagoo egiten duela Ipar Poloan baino. Hori beraiegangandik ikasi dut”.

ZANGOZAKO OINEZ BASOA

Zabortegi bat berreskuratzeko modu onena

Zangozan landatutako 1.000 horiekin, dagoeneko 20.000 zuhaitz inguru dituzte Nafarroako ikastolen Oinez Basoek. Argia Egunean (Usurbilen iazko irailean) eginiko hazi eta buztin bolak izan ziren zabortegiko lurrak berreskuratzeko argiazaleon ekarpena.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |



ZERUA ARGIA eta giro gozoan ageri zen La Celada eremua urtarilaren 17an. Migak, txistorra eta ardoarekin indarrak hartuta ekin diote auzolanari. “Auzolan”, bati baino gehiagori entzun diot hitz hori euskaraz, hitz hori bakarrik, “en auzolan” deklinatuta. Eremua zehaztuta dago, eskarmentu handien dutenek zuloak eginak dituzte, landareak prest daude... haurretatik aitona-amonetara, lan jostagarria da egin beharrekoa, landarea zuloan sartu eta aitzurraz buztinez ongi inguratzea. Bi orduan helburua betetzat emango dute, 1.000 zuhaixka landatzea. Aurretan bertan 3.000 landare sartzera iristea da, ordea, Zangozako ikastolaren Oinez Basoaren proiektua. 3.000 horietatik 1.350 herritar eta enpresek babestu dituzte, oraingoz. Izan ere, Oinez Basoek aukera hori eskaintzen

Goiko irudian, landare aromatikoak lur kutsatueta sustraitzen. Eskuineko tira-txinak jaurti zituen Argia Egunean egindako nendo dango bolak. Eskuineko orrian, Zangozako Oinez Basoko kideak, Baztango Oinez Basoko kideekin. Eta gaztetxoak nor bere landareari izena jartzeko ilusioz.

dute, 10 euroekin landare bat gehitzea guztion ondare izango den basoari. Munduko edozein txokotatik zuhaitz bat babestu nahi duenak www.oinezbasa.com webgunean du aukera. Proiektuko kideek aitortu digutenez, ikastolaren eta euskararen alde laguntzarik eman ez duten hainbat enpresek dezenteko ekarpena egin dute, ingurumenarekiko zorrak arintze aldera. Ilusio handiz seinalez-tatu dute gaztetxoek eurek babestutako landarea, zurezko oholak marraztuz. Batzuek landaketan eta besteak margolanetan ari diren bitartean, ekintzarako gogotsu dabil-tzan gaztetxoek euren kasa ekin diote tiratxina erraldoian nendo dango bolak jaurtitzeari. Ez dute lehen aldia. “Makurtu zaitez asko, indar handiagoz botatzeko. Nik txiki-xeago bat hartu dut, hobeto eusten da”...

Zabortegia berreskuratetik baso jangarrira

Zangozakoa Nafarroako ikastolek martxan jarriko laugarren Oinez Basoa da (Arbizu, Tafalla eta Tuterakoa dira besteak). Nafarroa Oinezek eragiten duen aztarna ekologikoa orekatzeko modu bat da, eta eskola bizidun bat ere bada basoa, bere horretan. Zer ikasgela hoberik?

Nafarroa Oinez antolatzen duen ikastolak basoa martxan jartzeko aukera planteatzen duenean, saiatzen dira euren basoa besteengandik bereizten. Iker Armentia Zangozako ikastolako kideak azaldu dizkigu landatu berri den baso honen ezaugarriak: “Zangozako zabortegi zaharrean gaude. Duela 8 urte itxi zen zabortegia, eta gure Oinez Basoaren helburuetako bat gune hau berreskuratzea da. Zaborraren gainean nahiz eta lur geruza handia botea dagoen, behean dagoen zaborraren ondorioz lur honetan kutsadura handia dago. Beraz, landatu ditugun landareak bertara ongi egokituko direnak dira: gutxi eskatzen dutenak, txikiak, ur askorik behar ez dutenak: Ezkaia, erromeroa, salbia...” landare aromatikoek egingo diote aurre, beraz, lurrean han-hemenka irteten diren hodi beltzetatik kanporatzen diren gasai. Zabortegiko lurra berreskuratzeaz gain, beste bi ildo ere izango ditu Zangozako proiektuak. Armentiak jarraitu du azaltzen: “Zangozan baratzea lantzeko ohitura handia dagoenez, hemendik hurbil dagoen 1.500 metro koadroko beste eremu batean



baso jangarri bat landatuko dugu. Eta hirugarren hanka bat ere badu proiektuak: hemengo herri denak batzen dituztenak ibaiak dira. Eta inguruotako bi ibai nagusiak, Irati eta Aragoi, Zangozan elkartzen dira. Ibai handi horien ertzetan txorientzako etxolaxoak jarriko ditugu”.

Hurrengo basoa, Baztangoa

Zangozara auzolanera etorri dira beste Oinez Basoetako kideak ere. Jakin-min handienaz ikastera, aurtten Nafarroa Oinez festa hartuko duen Baztango lantaldea. Euren da landatuko den hurrengo Oinez Basoa. Eta bosgarren honek ere bere ekarpen berezia egingo duela azaldu digu Baztango kide Manolo Lizardik: “Baztanen lur eremu osoaren %80tik goiti

komunala da. Guk Baztango Batzar Nagusiari eskatu diogu toki berezi batean, kostaldera ematen duten lurretan, Oinez Basoa egiteko aukera eta baimena eman digu”. Antolaketa komunalaz gain, sartuko diren landareak izango ditu bereizgarri: Karpea edo pago-lizarra (*carpinus betulus*) eta erramu portugaldarra edo loroa (*prunus lusitanica*). “Lorua erraten dioguna, Nafarroan aurkitzen ahal den toki bakarra Baztanen dago, Urritzateko eskualdean. Eta Iberiar Penintsulan gutxitutako landare bat da. Eta pago-lizarra berriz, Pirinioetatik beheiti Iberiar Penintsula osoan, basa bakarrik aurkitzen ahal da Bortzirietan, Igantzi eta Arantzartearen”.





ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak

Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak

Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074
www.galparsorookindegia.eu



Zumargain nekazaletxea

© 671 334 101 · Elizmendi auzoa · 20159 Asteasu



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Indarkeriaren aurkako erantzuna

CHARLIE HEBDO astekariaren aurkako atentatuaren ostean eta ondorengo gertaeren aurrean ezinbestekoa da hausnarketa lasaia eta arrazoizkoa egitea. Atentua giza eskubideen aurkako eraso benetan larria izan da: bizitza eskubidea, adierazpen eta prentsa askatasuna apurtu nahi izan ditu. Horrelako eskubideen urraketek eta eragindako sufrimenak merezi duten lehen erantzuna, noski, biktima horiekiko elkartasuna adieraztea da eta urraketa horiek gaitzestea.

Baina gertaera horiek kolokan jarri dute baita ere Europako askatasunen eta eskubideen sistema, hau da, baloreen sistema. Argi dago demokraziaren oinarrian askatasunak daudela eta hauek zalantzan jartzen direnean demokrazia bera dagoela arriskuan.

Hori guztia oso kezagarria izanik ere, ez da izango atentatuaren ondorio bakarra. European zabaltzen ari diren eskuin muturreko mugimenduek “islamofobia” hedatu nahi dute, alde batetik, fanatismo intolerantea eta Islama nahastuz eta, bestetik, kultura aniztasuna arbuiauz eta etorkinekiko politika publikoak gogortuz

Horrelako erasoek agerian uzten dituzte askatasunak murrizteko joera eta tentazio instituzionalak, segurtasuna indartzeko aitzakiaz. Horrela, ikusten ari gara egunero European eta Amerikako Estatu Batuetan, batez ere, proposamen eta ideia benetan bitxiak eta kezagarriak egiten direnean —bidaiarien erregistroa, whatsapp bertan behera uztea, erregimen berezia segurtasun nazionala babesteko...—. Hori guztia barne ministroen gailurretan, dena segurtasun arazoa delakotan, justiziak ezer esan beharko ez bailuen gure askatasunak eta eskubideak bermatzeko. Azken finean, berriro ere terrorismoaren helburuekin bat egiten da —edo saiatzen da— gure gizartea eta gure baloreen sistema aldatu nahi direnean.

Horretaz, hemen badakigu zerbait eta argi dago nola erabiltzen diren gertaera horiek sistema politikoa eraldatzeko.

Hori guztia oso kezagarria izanik ere, ez da atentatuaren ondorio bakarra izango. European zabaltzen ari diren eskuin muturreko mugimenduek “islamofobia” hedatu nahi dute, alde batetik, fanatismo intolerantea eta Islama nahastuz, eta bestetik, kultura aniztasuna arbuiauz eta etorkinekiko politika publikoak gogortuz, eta horiek beharrezkoak diren guztiz kontrako estrategiak dira, hain zuzen ere.

Gizarte demokratikoez eta Zuzenbideko estatuek gogoratu behar dute gure askatasunak eta eskubideak borroka eta iraultza askoren lorpen ukaezinak direla, eta ezin dela onartu inolako atzera pausorik sistema honetan. Alderantziz, honelako une larrietan sendotu eta areagotu behar dira gure gizartearen oinarriak, oraindik lortzen ari garenak: arrazoia, demokrazia eta pertsona guztien partehartzea, zuzenbidea eta esku-bide eta askatasunak.

Horixe bera, eta besterik ez, aldarrikatzen ari da Euskal Herriarentzat. Ez dago ukatzerik hemen ere sekulako giza eskubideen urraketak gertatu direla. Eta, zoritxarrez, onartu behar dugu eraso horiei emandako erantzuna ez dela beti zuzena eta arrazoizkoa izan. Hemen ere, lehen aipatutako tentazioetan erori da estatua eta indarkeria krudelari demokraziaz eta zuzenbidez beti erantzun beharrean, batzuetan giza eskubideak zapalduz erantzun da: horrela gertatu da legedi berezia onartu denean, torturatu denean, legea maltzurki interpretatu denean, presoaren eskubideak murriztuz edota justiziarengan presioa egin denean horrelakoak lortzeko.

Nire ustetan, ETaren indarkeriak sufrimendua eragin du, besterik ez. Baina, fanatismoak bilatu nahi izan badu gizartea eta estatua ezegonkortzea, arlo horretan zerbait lortu du: estatuaren ahuleziak eta beldurrak agerian uztea eta, neurri batean ere, bere deslegitimazioa indarkeriaren aurka erantzuterakoan. ■





Jose Inazio Basterretxea Polo

EHUKO IRAKASLEA ♦



INIGO AZKONA

Gezi zuria

LANKIDEAK hil dizkirate sarri. Beste askoren artean, lau aipatzearren, gogoan dauzkat Urkiaga 1937an, Galindez 1956an, Portell 1978an, eta Galdeano 1985ean.

2015a ez da baketsu esnatu gremiokoentzat, hor da Parisko atentatua *Charlie Hebdo* aldizkariaren aurka. Ofizio arriskutsua omen da ikertzailearena, kontalariarena, berriemailearena; baina, arriskutsua, benetan arriskutsua, jendea da. Letrak ez du hiltzen.

ESATEA, ARAZO

Buruan darabilzuna esatearen aurkako eraso izan da Pariskoa, esateko ausardiaren aurkakoa. Pentsamendu eta bizimolde monolitikoak ez du inor desberdinik ez ikusi ezta entzun ere nahi; noranzko bakarrek trafiko-seinalea du atsegin: gezi zuria zirkulu urdinean.

Erlauntza tirokatu dute, ezitia barik erlea bilatzen zutela. Parisen, jende adiementsua hil dute: iritzi bestelako, propio eta kritikoa zuena; beste zahagi bateko ardoa da iritzi berezi hori, eta hura islatzeko modua gustatzea ala ez. Jihadistek ekarri dute sega; baina, faxistak izan zitezkeen, edo estalinistak, edo mafiosoak.

Marraski bat, hitz bat, eduki kultural bat kaleratzea baldin eta heriotzarekin zigortzeko modukoa bada

halakoentzat, dena, den-dena, da zigorgarri. Eta jazarri, ideia baino, jendea jazartzen du gezi zuriak.

ISILTZEA, HERIOTZA

Shock-adiuntza hauetan, bakearen eta segurtasunaren aitzakian, estatu poliziala indartu da berriz ere gure inguruan; eta, berdin zaie kontrolatzaileei herritarraren azalaren kolorea, ezpainen tamaina edo ilearen tintura... kontrola da Jainko.

Lapikoa frogatzeko nola, bakea eta askatasuna orain jarri behar dira surtan: islamofobia saihesteko bezala askatasun demokratikoak babesteko, moro bat ikusi eta ihesari emateko tentazioa baztertzeko bezala poliziaren gehiegikeriak larrutzeko.

Zerbait izatekotan, bakea eta askatasuna dira gizabanakoak aurrez diseinatuak akzio ebatzi eta determinatuak, pertsonen arteko harremanak eta bizi-kidetzak kudeatzeko. Kultura-aniztasunaren eta sendotasun demokratikoaren

joko-zelaian egiaztatu behar dira berba horiek. Eta, frogantza-lan horietan, kontraesanak lehertuko dira, jakina.

Baina, norbanako eta komunitate gisa hiltzea da gezi zuriak gidatutako pentsamendu eta bizimolde monolitikoen aurrean isiltzea. ■



Ofizio arriskutsua omen da ikertzailearena, kontalariarena, berriemailearena; baina, arriskutsua, benetan arriskutsua, jendea da. Letrak ez du hiltzen

XDZ



Joanes Etxebarria



KAZETARIA

Maskaradaren izenean, amen!

KRIKATZEA MAITE DUT, betitik, eta batzuetan ikusgarri bat ikusi gabe ere kritikatzeko; halako herrian egiten delako, halako gaia aipatuko delako, edo halako umore txarrez iratzarri naizelako. Funtsan, halakoa naizelako.

Oraingoan ere ikusi gabekoa kritikatuko dut, baina ez gaiztakeria hutsez. Gai honetan barnatu nahi duenari Antton Lukuren *Libertitzear* liburua aholkatzen diot, nik azaletik aipatuko baitut. Aurten go maskaradak abiatu berri dira Idauze-Menditik, eta ene bizi laburrean sekula ikusi ala entzun ez nuen gisan, meza bate-

kin hasi dira. Alta, uste nuen erritu paganoa zela, eta mundua alderantziz ezartzeko ospatzen zirela inauteriak. Uste nuen botere harremanak, egun batzuetan baizik ez bada ere, pikutara igortzeko erabiltzen zirela gorriak eta beltzak, hots maskaradetak pertsonaiak. Lagunak Lukuren liburua itzultzen didanean (nahi dukalarik Lolüz!) hori guztia konfirmatuko dut.

Ez dut anartean maskarada ikusi, baina espero dut gero plazan, arratsaldeko jokoan, eliza pikutara igorri zutela... baina baditut dudak. ■





Andoni Mujika

♦ IRAKASLEA

Ikastolen identitateaz

LERRO HAUEN izpiritua transmitzeko bi kontzeptu: Autoeraketa Hezkuntzan eta Euskal Eskola Kooperatiboa.

Kokapen arin bat eginaz, 1960ko hamarkada herrigintzan oso aro aberatsa izan zen. Horren adierazle dira garai hartan euskalgintzan sortutako ekimenak. Beste iniziatiba batzuk ere ordukoak dira: kooperatibak nagusiki. Ekintzailetasun zibiletik abiatutako mugimendu autoeratuak guztiak.

Iniziatiba haien iturburuan zenbait motibazio zegoen. Baina konpartitzen al zuten bereizgarri komunik? Baieztatu daiteke denetan autoeratzeko jokabide bat zela diferentzialik garbiena. Beraz, ikastolen identitatez etorrita, berau ezaugarritzeko elementurik esanguratsuena ere autoeraketa izan zen. Ezaugarri hori ikastolen sorreran zegoen —modu intuitiboan eta halabeharrez—; egiteko moduetan dago, kulturari; eta helmuga da: iparrean bere burua antolatzen duen pertsona bat eta gizarte bat daude.

Edozein gizarte mugimenduk behar duen beste lehengai bat ere bazeukaten: amets kolektiboekin konektatzea. Zeintzuk ziren, ilusio haiek? Euskalduntasunaren transmisioa, euskara eremu estrategiko batera eramatea, Euskal Herriaren kontzientzia, zapalkuntzari proiektu bidez erantzutea, autonomoak izatea, hezkuntzaren berrikuntza eta eliza eta estatuen eskola ereduaren aurrean alternatiba bat proposatzea.

Horrez gain, autoeraketa egiteko konfiantza behar da. Norberarengan eta inguruan. Ikastolan konfiantza hori hiru

mailatan eman behar da: maila instituzionalean (kooperatiba eratuz), kudeaketan (autonomiaz lan eginez eta erabakiak hartuz) eta pedagogian (pertsonarengan konfiantza sustatuko duen pedagogia batekin). Eta hara! Egungo psikologia eta pedagogiaren zientziek autoeraketa kooperatiboaren ideia oso intuizio ona izan zela baieztatu digute.

Pertsonak eta proiektuek euren burua antolatzeak gaurkotasun handia dauka. Eta zergatik? Erabakimena protagonisten eskuetan egotea interesgarria delako; jabetzak erantzukizuna dakarrelako, eta honek, kalitatea bilatzeko beharrezko tentsioa; autonomia irabazten delako; lankidetzak prak-

Pertsonak eta proiektuek euren burua antolatzeak gaurkotasun handia dauka. Eta zergatik? Erabakimena protagonisten eskuetan egotea interesgarria delako

tikatu egiten delako; pertsona helduagoak garatzen direlako; kudeaketan eraginkortasuna irabazten delako; eta demokrazia eta gizartea eraldatzeko bokazioa hazi egiten direlako. Praktika hau oso gurea eta eraginkorra izan da, eta horren kultura bat badugu. Etorkizunean agertu daitekeen edozein eszenarioren aurrean prestatuago egongo gara horrela. ■



IRITZIAREN LEIHOA



GEREZIEN DENBORA PASTORALA EL TIEMPO DE LAS CEREZAS

BAIONAKO LANGILEEN HISTORIA
AZALTZEN DUEN HERRI ANTZERKIA
TEATRO POPULAR SOBRE LA HISTORIA
DE LOS TRABAJADORES DE BAIONA

BARAKALDO OTSAILAK 7 FEBRERO

EGUN OSORAKO BONO
BONO PARA TODO EL DÍA

- + BISITA GIDATUAK
- + BAZKARIA
- + PASTORALA
- + VISITAS GUIADAS
- + COMIDA
- + PASTORAL

INFO+
WWW.TOPATOUR.EUS

SARRERA SOILIK · SOLO LA ENTRADA
www.teatrobarakaldo.com

ANTOLATZAILEAK / ORGANIZADORES:

topatour
euskal kultura protagonista



EZKANDRAI

BABESLEAK / PATROCINADORES:



2014 urteko euskal kulturaren urtekaria

- Urteko kronika: Demokrazia linguistikoa eztulka
- Kulturaren esparru bakoitzean jazotakoak, sailez sail
- Azken hilabeteetako adierazpenik esanguratsuenak
- Kulturaren tendentzia izaten ari diren gertakarien prospektibak
- Datu eta estatistika interesgarriak
- Bukaeran, gida praktikoa, kultur jardueretako pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko kontaktu bideekin



ESKURA EZAZU!

☎ 943 371 545 · argia.eus/denda · denda@argia.eus

«Zu, ni eta denok gara Fausto»

Fausto pertsonaia klasikoaren azalean sartzeko proposamena egin digu Galder Perezek bere azken lanean. Fausto, herritar eredugarria. Jatorrizko antzezlan, Bilboko Pabellon 6 aretoko sormen laborategian sortu zen, gaztelaniaz, baina euskaraz ere estreinatuko da, datorren urtarrilaren 29an Donostiako Antzoki Zaharrean, Korrika Kulturalaren egitarauaren baitan. Fredi Paiak egin du itzulpena. Entseguan harrapatu dugu Galder Perez zuzendaria, urduri, azken ukituak direla-eta.

| MYRIAM GARZIA |

Argazkiak: Ane Zabala

Kontaidazu nolakoa izan den Fausto antzezlanaren jaiotza, nola sortu zitzaizun ideia eta nola garatu den.

Gogoak eta beharrak nahasturik sortu zen proiektua. Lander Otaolak, Mikel Losadak eta hirurok aspalditik genuen testu klasiko bat gaurkotzeko gogoak, eta azken urteotan Marloweren Faustorekin zenbait jolas eta saiakera egin ostean, iaz 6. Pabiloian amesten genuena taularatzeko behar genituen baldintzak eta aukera etorri ziren. Hortik gogoak. Eta beharra, gaur egun bizi dugun eta kiratsa darion mundua nola ikusten, ulertzen eta sentitzen dugun kontatu nahi dugulako, ziria noraino sartu diguten taula gainean agertzeko beharra genuelako.

Gizarte europarrean bizi dugun fabula faltsuaz ari gara, beraz, eta horren erregina den demokraziaz. Ondo kontatu eta erakitako ipuina da demokrazia. Eta horixe, zapaltzen dugun lur labainkor eta kutsakor hau oso gogoko dugu, antza; egunero sinesten dugun gezurra hain potoloa eta agerikoa da... Eta ipuinean bezala, bitartean, libre bagina bezala bizitzera kondenatuta gaude ongizate gizartea deiturikoan.

Hori guztia agertzeko ezinbestekoa izan da antzerkiaren eta musikaren inguruan bildutako komunitate utopikoa, sormenaren beharrak eta kontatzeko gogoak elkartutako lan-taldea. Horrela joan zen garatzen proiektua. Testua eta horren moldaketa izan genituen abiapuntu. Gero, denon parte hartze zabalarekin, hain talde heterogeneoan, gutako bakoitzak ahal zuen guztia eman zuen.



Galder Perez, Fredi Paiak euskaratu duen *Fausto* obraren zuzendaria.

Fitxa teknikoan, luxuzkoa, egun euskal antzerki-gintzan zabilatzaten hainbat sortzaile ageri zarete. Diziiplina asko nahasten dira proiektuan. Tes-tuari dagokionez, XVI. mendeko C. Marlowe-ren *Fausto* moldatu genuen Mikel Losada, Lan-der Otaola eta hiruron artean, eta ondoren Fredi Paiak euskaratu zuen. Rap guztien hitzak, berriz, Endika Lahainerenak dira, eta zuzenean abesten ditu. Berarekin batera, taula gainean lau aktore ari dira: Mikel Losada, Miriam K. Martxante, Lander Otaola eta Diego Perez. Musikari dagokionez, Maisha Mc-k egin du



ekoizpena, eta emanaldietan ere zuzenean ari-
tzen da DJ. Soinuak presentzia handia dauka
emanaldi osoan, musikak ez ezik, soinuek eta
zaratek ere girotzen baitute eszena bakoitza.
Soinua bibrazioa da; aktoreek ikusleak ukitzen
ez badituzte ere, soinua ikusle eta entzuleen
azaletik barruraino sartzen da dardara dela
medio. Horri heldu diogu. Irudien bidez, bes-
talde, hitzen eta soinuen bidez lortutakoa are-
gotzen da: Zigor Gorostiolak sekulako disei-
nua egin du argi eta proiektzioekin, giro ilun,
kaletar eta basatia sortu du. Horri aktoreen
mugimenduak gehitu behar zaizkio: alde bate-
tik, errailetan bizi dugun lizunkeria eta basake-
riarena, eta, bestetik, sinetsarazi nahi diguten
dotorezia eta handitasunarena.

**P6ko laborategian sortu zen, lehendabizi gazte-
laniaz, eta gero euskal bertsioa etorri da. Antze-
koak dira ala bakoitzak ditu bere ñabardurak?**

Mamia berbera da, kontatu nahi duguna uni-
bertsala baita, barkatu, mendebaldekoa. Beraz,
ostikada berdin jasotzen da, hizkuntza edozein
dela ere. Baina hizkuntza bakoitzak bere ñabar-
durak ditu, jakina. Euskaraz lantzen ari garen
honek intsentsu usain handiagoa daukala esan-
go nuke... Gure hizkuntzak, eta gure herriak
berak ere, agian, elizpean eman, jaso eta jasan
duen guztiagatik izango da. Euskarazkoa josta-
riagoa ere badela uste dut. Ez gaude horren
ohituta testu klasikoak entzutera, hitz eta esaldi

**Argazkian,
gaztelaniazko
Fauston parte hartu
duten aktoreak.**

barrokoak, eta nabarmenagoa da berorika,
zuka eta hitanoaren arteko jolasa, hizkera jaso
eta kaletarraren arteko kontrastea... Eta erantsi
dizkiogun erreferentzia batzuenatik ere,
beharbada, euskarazko testua dagokion eremu-
ra gehiago gerturatzen da, alegia, ikusleek, obra
osoan esaten ez bada ere, Euskal Herrian ber-
tan kokatuko dute antzezlanaren akzioa.

**Gaztelera edo euskaraz, antzezle berberak ari-
tzen dira taula gainean? Honek esan nahi du
euskarazko antzerki gehiago ekoiztu daitekeela,
egon badagoela lehengaia horretarako?**

Kasu honetan, guri gaztelaniaz sortzeko pro-
posamena egin ziguten, baina hasierako sorkuntza
lan horretan jada euskaraz hitz egiten
genuen asko. Nik lantaldeko gehienekin eus-
karaz izaten dut eguneroko harremana. Horre-
gatik, lanean ari ginela, euskarazko bertsioa
egiteko gogoa piztu zitzaigun. Diegorentzat
euskarazko lehen lana da, eta primeran ari da.

Euskaraz sortzeko lehengaia egon badago,
asko, baita maila eta gogoa ere. Baina publi-
koa? Beharbada hori da behar duguna. Azken
boladan interes handiagoa somatzen ari naiz
euskarazko antzerkiarekiko, ez dakit gogoa,
irudipena edo errealtatea den. Dena dela,
ekoizpena eta sorkuntza bereizi behar direla
uste dut. Sortzaileok ez dugu ekoizten eta
oso ekoizle gutxi sortzen du... Kultur eredu
duin batean, naturaltasun osoz hitz egingo
genuke ekoizpenaz, baina uste dut euskaldu-
nok gehiago sortzen dugula ekoiztu baino.
Izango dugu hor ere zer ikasia...

Nolakoa izan da Fredi Paiaren lana?

Itzela! Fredik gaztelaniazkoa ikusi zuenetik
agertu zuen testua euskaratzeko gogoa. Seku-
lako lana egin du. Ez da batere testu erraza,
esan bezala oso barrokoa baita, tratamendu
nahaste piloa eta, zintzoak izanik eta tamalez,
euskaraz ez gaude halako testuetara horren
ohituta. Guk, jakina, ez ditugu ikusleak izutu
nahi, kontrakoa. Aktoreek ezinbestekoa dute
entzulearengana iristea. Oreka hori aurkitu eta
mantentzea zen testuaren erronka nagusietako
bat. Lanean izugarri gozatu zuela ere esan
digu, eta eskerrak! Erronka oso polita zen,
ezohikoa gurean. Testua irakurri nuen lehe-
nengo momentutik, idatzi genueneko muina
mantentzen zuela ikusi nuen eta barre ere egin
genuen erruz. Fredi oso ona da plazan bertso-
tan, badakigu, baina hizkuntza jasoan idatzita-
ko testu klasiko batean, behar duen handita-
sun kutsua mantentzeaz gain, ateraldi ederrak
lortzeko gaitasuna ere baduela erakutsi du.

**Denok gara apur bat Fausto? Denok nahi dugu
herritar eredugarria izan? Bizitza eroso horren
parte izan?**



Faustok hainbat bertsio izan ditu historian, hainbat idazlek heldu dio bere modura. Zein da gure Faustoren jatorria?

Gure abiapuntua XVI. mende bukaerako testua da, Christopher Marlowek idatzitakoa. Goetherena da eza-gunena, eta mitoa bera bada ere, arima deabruari saltzen dion gizonarena, guk Marloweren gogoko genuen, edukiz eta egituraz gaurkotasun handia ere bazuela iruditu zitzaigun... Egitura aldetik errespetatu badugu ere, eszenek jolaserako aukera handiago ematen dute, satira eta komedia gehiago daude. Klasikoari buelta eman diogu eta, paradoxikoa badirudi ere, neurri batean, bere horretan utzi nahi izan dugu.

Nola deskribatuko zenituzke gaur egun kaleetan dabilzan Faustoak?

Zu eta ni gara, denok gara Fausto. Gure protagonistak, Jon Faustok, politikan egingo du bidea, oso nabarmena delako egunero bizi dugun tranpa erraldoi honetan politikariek duten ardura. Baina Fausto ez dira politikariak, patroiak edo diru gehien biltzen dutenak, hori sustengatzea posible egiten dugun herritar eredugarriak baizik: hipotekatzen dena, ezkontzen dena, haurrak dituen, auto berria erosten duena... Denak preso. Gorpil zoro batean, ezin atera gaude, behin eta berriz errepikatzen dugu, egunero saltzen diogu gure arima deabrua den Demokraziari, horregatik gara denok Fausto. ■



Antzezlanean esaten dugu libre antzean bizi garela kartzela den eta sistema esaten diogun honetan. Denok ematen dugu egunero baldintza hauetan bizirauteko gure baimena, nola edo hala. Laino artean bezala galduta gabiltza sistema kapitalista-arrazista-heterosexista-patriarkalean, balore faltsuek zipriztinduta, pertsonon zentzumenek ere lekurik ez duten eredu ekonomizista hutsean. Hori dena jakin badakigu eta bertan jarraitzen dugu, ezer jazoko ez balitz legez. Hortik dator antzezlanaren estetika sadomaso guztia, erotikarekin eta lizunkeriarekin konkistatzen gaituzte, eta guk onartu egiten dugu jipoia, gozatu egiten dugu horrekin. Okerrena da batzuetan protesta egiten dugula, baina azkenean beti kaka berera itzultzeko.

"Gaur egun bizi dugun eta kiratsa darion mundua nola ikusten, ulertzen eta sentitzen dugun kontatu nahi dugu, ziria noraino sartu diguten taula gainean agertu".



Ain_1 taldearen azken kontzertua

Eskoriatzako Zaldibar antzokian,
Otsailaren 6an (ostirala), 22.00etatik aurrera
Sarrera: 2 euro
<http://ain1.bandcamp.com/>

Ezkerraldeko adarraren hotsa

Ibaizabaleko Ibarrekerra asko aldatu da azken urteotan. Etorbideak zabaldu dira, lorategiak eta plazak ugaltu, etxe berriak egin eta, metroa hartuz gero, 10 minututan hel zaitezke Ezkerraldeko muinera. Euskararen presentzia ere handitu da, gero eta gehiago eta agerikoagoak dira bertako euskaldunak. Horren adibide dugu Adarrots, euskal musika tradizionala oinarrian, folk musika sortu eta euskaraz abesten duen taldea. 10 urte bete ditu Adarrotsek, eta ospatzeko *Adarraren Hotsa* disko-liburua argitaratu dute. Dagoeneko, Ibarrekerraren adarraren hotsa ez da Bizkaiko Labe Garaien tutua.

| MYRIAM GARZIA |
Argazkia: Adarrots

IBARREZKERREKO 7 lagunek osatzen dute Adarrots folk taldea. Iñigo Espiña (biolina), Iñigo Carballo (alboka) eta Sendoa Gil (perkusioa) izan ditugu mintzakide, taldearen 10. urteurrenari errepasoa egiteko, eta horren harira, *Adarraren Hotsa*, argitaratu duten disko-liburuaz jarduteko.

Ortuellako lagunarteko bazkari bat alaitzeko elkartu ziren lehen aldiz, 2004ean, eta ordutik, taldeko kideak sarri aldatu badira ere, beren musikak iraun dezan lortu du Adarrotsek. “10 urte hauetan gauza asko gertatu zaizkigu”, gogoratu du Sendoa Gilek. Tartean, maketa bat eta bi disko argitaratu dituzte, *Haižekada* (2009), *Zazpi Ditut* (2012) eta berriena, *Adarraren Hotsa* (2014), taldeak berak autoekoitziak denak.

Euskal musika tradizionalako tresnak erabiltzen dituzte (alboka, txirula edota kaxoia), beste zenbait musika-tresnarekin batuz (biolina, klarineta edota gitarra). Baina “gure erara moldatzen ditugu” diosku Iñigo Carballo, taldeko albokariak. “Hasieran bertsioak egiten hasi ginen, euskal musika tradizionalako doinuak edota euskal musikari ezagunen abestiak jotzen genituen, baina halako batean gure abestiak egiten hastea erabaki genuen”, jarraitu du albokariak. “Eta pausu bat haratago eman genuen, tabernetatik eta kontzertu txikietatik eszenatoki handietara” diosku Iñigo Espiñak, bibolin-jotzaileak.

2009an, Mendebala Folk Jaialdi ezagunean talde hasiberrien saria irabazi zuten Adarrotseko lagunek, eta sariari esker, lehen CDa grabatu zuten: *Haižekada*. Córdoba (Espainia) Eurofolk jaialdian ere saria irabazi eta nazioartean jotzeko ateak zabaldu zitzaizkion Adarrotsi. Portugalen, Italian eta Irlandan hainbat zuzeneko eskaini zituzten. “Guretzat oso garrantzitsua izan zen, euskal musika kanpora ateratzeko aukera izan genuelako. Baina harritu gintuen Espainia mailako jaialdi batean euskaraz abesten duen taldea saritzeak”.

“Gure antzeko taldeak inguruotan zein egoeratan dauden ikusi besterik ez, diskoetxearen rola hain beharrezkoa ere ez dela ohartzeko”

Iñigo Espiña,
biolin-jotzailea

Autoekoizpenaren aldeko hautua

Lehendabiziko diskoa Mendebala jaialdiak ekoitzi bazuen ere —horixe zuen saria—, hurrengo bi diskoak beraiek autoekoitziak dira. “*Haižekada* diskoa grabatuta genuela zenbait diskoetxerekin hitz egin genuen, baina gauzak nola zeunden ikusita, hurrengo diskoak gure kabuz egitea erabaki genuen”, dio Carballo. “Gure antzeko taldeak inguruotan zein egoeratan dauden ikusi besterik ez, diskoe-

txearen rola hain beharrezkoa ere ez dela ohartzeko. Guretzat garrantzitsua da sormenetik hasi eta prozesu osoa kontrolatzea”, zehaztu du Espiñak.

Euskal musika tradizionaletik abiatu dira, baina doinu zaharrak gaurkotzearen aldeko apustua egin du Adarrots taldeak. “Euskal



Herriko doinu eta erritmo tradizionalak jotzen ditugu baina aldi berean geure abestiak sortzen saiatzen gara” dio Sendoa Gilek. “Guk geuk sortutako musika da. Hala ere, euskal musika tradizionalako tresnak erabiltzen ditugunez, alboka eta abar, kutsu tradizional hori emana dator. Azken diskoko abestiak, adibidez, denak dira geuk sortutakoak. Hala ere, erritmo tradizionalak erabiltzen ditugu gehienetan (arin-arinak edota dantzak), egitura hoiek daude abestien oinarrian”, dio Iñigo Carballok. Sorkuntzari dagokionez, “Iñigok albokaz sortutako melodiatik abiatzen gara, doinu horri bakoitzak bere ekarpena egiten dio, geruzak gehituz”, jarraitu du biolin-jotzaileak.

Ezkerraldeko euskal musika

“Hasieratik erabaki genuen euskaraz sortzea. Gure eskualdean, ezkerraldean, euskaraz abestea ez da oso gauza arrunta. Zaila da eta bertako jende askorengana ez gara heltzen. Hala ere, Ezkerraldean gero eta euskaldun gehiago dago eta gero eta gehiago entzuten da euskara. Jende askoren militantiari esker”, albokariak azaldu duenez. “Gure taldea egotira horren isla da. Ezkerraldean badaude euskaldun zaharrak, euskaldun berriak, euskalduntze prozesuan daudenak eta euskaraz ez dakien jendea. Gure taldean beste horrenbeste gertatzen da”.

Adarrotsen azken diskoa, *Adarraren Hotsa*, ez da disko hutsa, taldearen 10. urteurrena ospatzeko liburu-diskoa baizik. “Gure historia kontatu nahi genuen” dio Iñigo Carballok.


Hasieran euskal musika tradizionalako doinuak eta euskal musikari ezagunen abestiak jotzen zituzten Adarrots taldekoek.

Hiru formatu ditu lan honek: DVDa, taldearen ibilbidea azaltzen duen dokumentala jasotzen duena; CDa, azken urteotako 10 abestiz osatua, urte bakoitzeko bat, gehi 4 abesti berri, non agerikoa baiten taldearen garapena; eta, azkenik, 40 orrialdeko liburuxka, taldearen argazki eta zenbait hausnarketaz jantzia. Adarrotsen zuzenekoetan, hiru formatuak bistaratzen dira, kontzertuan dokumentala eta argazkiak ere ikusi baitaitezke.

Adarrotsen urteotan egin dituen lagun eta kide garrantzitsuen artean, Balea estudioetako Asier Erzilla eta Unai Gonzalez ditugu —besteak beste Kepa Junkeraren ohiko soinu teknikariak—. *Haizekada* lehen diskotik hasi eta geroztiko guztiak Balea estudioetan grabatu dituzte. “Hastapenetan batez ere, funtsezko izan zen Asierren laguntza. Berak erakutsi zigun nola produzitu eta grabatu behar den diskoa”, Sendoa Gilen hitzetan. “Haien harrera ona eta konplizitatea erabatekoa izan da beti” dio Espiñak. Unai Gonzalezek berak laguntzen ditu zuzenekoetan teknikari gisa, “eta hori, oso garrantzitsua da, ondo ezagutzen baitu zein den taldearen soinua”, biolin-jotzailearen ustez.

“*Adarraren Hotsa* disko berriak oso ondo islatzen du taldearen izaera eta garapena. Nahia egia bihurtu dugu. Disko honen bidez, 10 urte luzeko epealdia itxi nahi izan dugu, eta bide honetan ikasitako guztia eraman nahi izan dugu praktikara” aipatu du Iñigo albokariak. Euskal Herri-
tik barrena egingo duten bira izan-
go da hitzon lekuko. ■





Euskal Herria ezagutuz

BIDUZE IBAIA (NAFARROA BEHEREA)

Bizitzaren harira

Ibai baten ertzetik oinez ibiltzean, bizitza bat harilkatzen dugulako irudipena hazten doakigu. Hala agitzen da Biduze erreka kasuan, Donaixti gainetako harpe zulo ilunetik xirripa jazartzen denetik Aturri lasai eta zabalera, bere ur argi nasaiak isurtzen dituen uneraino jarraitzean. Samatzeko zubi azpian bukatzen da bidaia aberatsa. Aldion metaforak errealtatea zurkaizten duela garbi dago.

Testua eta argazkiak:

| ITXARO BORDA |

BIDUZE ZAIN BAT DA. Oztibarre eta Amikuze zeharkatzen ditu, anitzetan aberastasuna ekarriz eta bakanetan, iragan urteko uztaila hastapenean bezala, suntsipena, deboila eta tristura. Saihets errekek oro hantu ziren ohituraz kanpo. Zenbat etxe eta zenbat zubi eraman zituen ordubete eskasez borobilduriko ur basatiaren uhin beilegiak. Zaharrek beraiek zioten ez zutela sekula horrelakorik ikusi. Hargatik, gehienetan Biduze aitzina doa, duintasunez eta bakez jantzirik.

Biduzen ezpondetako bide ugariak bihurtzeko dabilta. Erromatarrek, Nafarroako armadetako soldaduek eta Santiagorako beilariek zapaldu zituzten. Donapaleu gaineko Gibraltar gunean bilbatzen dira Puy en Velaytik, Toursetik eta Arlestik datozen xendra nagusiak, Ibañetaino luzatzeko.

Gaur egun Donejakuerako txirla moldeko zigiluaz seinaltatuak dira: martxo eta urri artean milaka pertsona pasatzen dira Arankuetik Larzabaleraingo zidropuska airosean. Izura eta Arroze zaindari daukate ibaiak eta bideak.

Arroze kausitzen da aspaldian berritzen ari diren teilaturik gabeko baseliza harrigarria.

Donapaleura joan da herrietan zen bizia

Donapaleu da Biduzek hazkurritzen duen eremuaren birika. Abantzu 2.000 biztanle kontatzen dira armarran esmeraldazko bihotza troxatzen duten Nafarroako kateak dakartzkien hirian. Eskualdeko zerbitzu publikoak, eskolak eta ikastola, gasolindegia, supermerkatuak bertan biltzen dira jadanik, herrieta-koak hondar hiru hamarkada hauetan desagertzen joan ondian.

Erdi Aroan merkantziak Baionatik jaisten ziren gabarretan Akamarren, oraindik ere miresten ahal den Port Biduze izeneko moilan

Lan-tokia zerratu ziotenean, Larzabaleko postako anderearen sentimenduen berri irakurri genuen *Iparaldeko Hitzak*, *Berria* egunkariaren

gehigarrian. Baserri guneetan askotan errepikatu den historia. Aiziritze, Unaso, Garruze edo Behaskane, Donapaleu edo Baionan lanean ari diren lo-hiriak garatu dira ikaragarriki: etxe berriak eraiki dira, norberaren natura eta hiritik urruntasuneko ametsak egiaztatuz.

Gabarren garai urrun hura

Donaixti eta Gixune artean herri gotorrak zeharkatzen dira, hala nola Donaixti, Jutsi, Larribarre, Burgue, Akamarre, Bidaxune eta Gixune.

Biduze ontzizka daiteke Samatzeko ahotik Akamarreaino. Erdi Aroan Baiona zen Nafarroako erregeen portuetatik bat eta merkantziak jaisten ziren gabarretan Akamarren, ibai bazterrean oraindik ere miresten ahal den Port Biduze izeneko moilan: Salieseko gatzak ederki kontserbatzen zituen Amikuze oihan komunaletan hazi urde azpiak, ardi eta behi haragiak, arto eta ogi bihiak, baratzeak, oiha-lak, baserrietan ekoitzi teilak eta brika gorriak.

Gabarrak kargaturik itzultzen ziren Baionatik, piper beltza, kafea,



Biduze ibaia Bidaxunen

(ARG.: CTHOE-CC BY SA).



Goian, ezkerrean: Biduzeren ibilgua Izura eta Jutsi artean. Eskuinean: Akamarreko errota. Behean, ezkerrean, ibaia Donapaleun. Eskuinean, berriz, Aturrira iritsi aitzineko azken metroak, Samatzen.

txokolatea, mundu mailako komertzioaren emaitzak utziz Gixuneko, Bidaxuneko eta Akamarreko portuetan. Hortik aitzina bizidunen bizkarrez edo idiek tiratu orgaz helarazten ziren aberastasunak ibar zokoratuenetara.

Lehengo eiherak, orain bizikeku

Ibaia ekonomia zuhurra errazten zuen tresna eroso zen. Ontasun eragilea ere bai. Biduze jarraitzean ohartzen gara eihera edo errota franko badirela. Herri bakoitzak bat baino gehiago eduki zezakeen bihi mota guztiak ehotzeko: gora-go aipatu artoa eta ogia, bai eta espalta, zekalea edo garagarra.

Eihera parrasta bat bizileku bihurtu dira, bakarrek beraien aitzinako funtzioa atxiki duten arren, eiheren eguna ospatzen denean bisitatzeko gisa. Ilharreko Gabriel zenaren errota erraldoia laster sapa-rren, belarren, asunen eta zuhaitz

salbaien abarrek ezkutatuko dute. Ibaia mozten zuen nasa ageri da oraindik, une batean edo bestean, galerna batek hautsia. Errota boro-bil abandonatuak bermatzen dira baratze-erakustokiaren belardietan, bere oinarritzko zereginetik urruti.

**Europa Berdearen
aurreneko esperimentuak
Biduze hegian egin ziren:
lur berrantolaketak, aintzira
zulatzeak...**


Biduzeren haran zabala laborantza berriaren laborategi antza altxatu zuten Oragarreko auzapeza zen Jean Errecart garatzaile demokratikistauaren zuzendaritza pean Bigarren Mundu Gerratik landa. Amikuzeko nekazari haboroxenak etxetiarak izanki, hirietara partitze-

ko lehen bagoietan urtzen ziren hauen haur andanak. Gabadi zolako, Labetze ala Zohaztiko zelaletan ibiltzean baserri utzien kopuruak galderak pizten ditu ibiltariarengan.

Landa-exodoa

Europa Berdearen aurreneko esperimentuak Biduze hegian egin ziren, lur berrantolaketak, aintzira zulatzeak, Lur Berri kooperatibaren eta laborantza lizeoaren sortzeak, ausazko igerilekuak eta sendatzeko klinika eraikitzeak Donapaleun. Landa-exodoa menderatu zen eta Donapaleuko kantonamendua askoren laneko leku bihurtu.

Behiak, ardiak, zaldiak alhatzen dira larre eta pentze berdeetan. Edozein baserritara hurbiltzean antzarak eta ahateak aditzen dira karrankaz bereziki Donapaleu eta Gixune artekoetan. Urte bukeretak oturuntzetan zerbitzatzen den



Biduzek Donaixtiko gainetan egiten ditu lehen kilometroak (ezkerreko argazkian). Eskuinean, Burgue-Erreitiko zubia.

gibel ospetsua hor ekoizten da. Baratzezaintza asko ere kausitzen da abere hazkuntzaren osagarri. Azken hamarkada hauetan laborantza organikoak ere bere esparrua handitu du Biduzeren ibarrean.

Garai berdinean halaber udatiarrak eta ibiltariak ongi hartzeko egiturak plantan jarri dira. Oro har Biduze hegiko jendeak xinaurriak bailiran tematzen dira bizibidea atera asmoz, guztiak juntatzen direla ostiraletan Donapaleuko merkatu estalian, Oztibarre eta Amikuzeko berriak —ez bakarrik— trukatzeko.

Nortasun handiko herrien haria

Donaixti, Bunuze, Arroze, Izura, Jutsi, Larribarre-Sorhapürü, Uharte Amikuze, Behaskane, Donapaleu, Aiziritze, Gamue-Zohazti, Amenduze, Gabadi, Labetze, Ilharre, Burgue-Erreiti, Erango, Akamarre, Bidaxune, Gixune, Samatze: Biduzeren 80 kilometroetan lerrokatzen dira nortasun handiko herriak. Hasieran ibaia hertsia eta zuzena baldin bada, Aturrira botatzear denean nagitzen doa, sugetzen bezala, bihurgunez bihurgune, lur buztintsua errazagoa delako urratzeko.

Bidaxunetik gora, isilik eta lasai, isurtzen da amiamokoak, belardi erraldoiak, zurzuriak eta uretan arrain oparoak gerizatuz. Amikuzeko oihanaren saihets bat balakatzen

du errekek Erango eta Bidaxune artean: Apatarenea xirriparen inguruan hedaturiko oinezko ibilaldi ludikoa preziatu daiteke edozein sasoitán, laritzen, pinuen, haltzen, astigarren eta haritzen freskotasunaz baliatuz.

Bazter eleanitzak

Biduzeren ertzak hizkuntzen alde-tik polifonikoak dira. Oztibarre eta Amikuzen noski euskara da ezpainenara jaukitzen, baina Bidaxunetik hara okzitaniera —gaskoiaren musikaz...— nahasten da euskararen aztarnekin batera. Akamarren, Gixunen ala Bardozen badira oraino euskara ezagutzen duten adinekoak. Uste izan zen duela 30 urte hauetan euskara galduko zela Amikuzen baina alderantziz suertatu da: hiztunak gaztetzen joan dira bereziki Donapaleu zein Izurako ikastolei eta Larzabaleko Manex Erdozaintzi-Etxart kolegioei esker. Dagoe-neko eskola elebidun guztiz gehienetan zenbait orduko euskararako hurbilketa kurtsoak badituzte.

Kultura alorra jorratzen jarraituz, erantsi dezagula, Donapaleun zohitu zela Erdoi anderearekin ezkontzeko Mauletik etorri Allande Oihenart distiratsua XVI. mendean, Ibarlako Manex Erdozaintzi-Etxart poetak egun lantsuak eman zituela Frantziskanoen egoitzan eta Eñaut Etxamendik Izurako Ellande

Larralderekin batera bazterrak harrotu eskualde utziaren etorkizuna a capella abestuz. Ahantzi gabe Antton Luku, Amikuzen sortua hori ere.

Donaixtiko harpeak, Biduzeren iturria

Bidaia bukatzen dugu, Biduze erreka lurraren sabeletik jazartzen den harpearen magalean. Arbailak izeneko mendi mazela kaltzikoaren maldan aurkitzen diren kobak Donaixtikoak dira. Hiru oreneko joan-etorriak begiak eta gogoak asebetetzen ditu beti.

Jatorrizko magmarekiko zillborra ez du moztzen Biduzek: zulo ilunetik dator, berehala ur zohargizko putzua moldatuz eta harri leunetan behera lehiatuz. Udan erreka oheak idor-idorrek dira eta neguan alabaina gainezka eta ibilbideak lohiz irristakor. Harpearen sarreratik zuhaitzen itzalak eta argiak ikustean munduaren hasiera unean gaudela dirudigu.

Biduzeren joanean jada edozer gertatu daiteke. ■



Bisita tu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Literatura | ITZULPENA

Ez zen diruagatik.
Ana Jaka

Itzulpena: Iñigo Errasti
Elkar, 2014



Ez dut hil nahi

HIZKUNTZA eta egitura xumeak erabili ditu egileak lan honetan lehen pertsonan idatzitako memoria moduko bat osatuz. Olga da bere bizitzako pasarte bat gogoratu eta kontatzen diguna, berarentzat inflexio puntua izan zena, bizitza aldarazi ziona. 45 urteko ofizio eta afiziorik gabeko emakume hetero-sexuala da protagonista, “etxebizitza, familia eta txakurtxorik gabe” bizi dena, Juantxo yonkia da bere amorante-laguna eta kalean topatutako gay gazte bati bere pisua konpartitzea eskaintzen diotenean hasten da kontakizuna.

Pertsonaiei dagokienez Sonia Gonzalezen 2003ko *Ugerra eta kedarra* lanekoak ekarri dizkit gogora, narrazio honetako pertsonaiak ere kalekume eta gautxoriak direlako, hiriaren periferietan ibiltzen direnak, sistemaren bazterretan gordez. Baina gaiak du indarra liburu honetan, bizitzaren antzerkia eta komunikazioaren itxurakeria ipintzen ditu foku azpian, betiko gai bat mahai gaineratuz; bizitza eta heriotzaren arteko tentsioa, kasu honetan maitasunaren alde iluna eta eguneroko biziraupena azpimarratzen dira.

Maitasun erromantikoaren mekanismo sunsitzailak aletuko zaizkigu, bikote bateko kideak

harremana utzi nahi duenean eta bestearen erantzuna jasotzean. Maitasunaren aitzakian besteari eta norberari ipintzen dizkiogun kateak ditugu lehen planoan: “Bere ondoan egon naiz. Beste inori onartuko ez niokeena jasan dut, maite nuelako, hain ikusten nuen hauskor (...). Papera bete dut, neure rol horixe bilakatu naiz, eta jada ez dakit zer nahi dudana, ezta nor naizen ere”. Eta honekin batera sexu/genero sistemaren oinarri diren genero rola ere agertzen dira: ‘benetako gizonak’ eta ‘maritxuak’ edo ‘emazte-jabetza’k eta ‘femme fatale’-ak.

Superbibentziarako dirua –ala diru falta– da protagonistaren eguneroko kezka: diru-laguntzak, alokairua, garraiorako edo janarirako aukerak: “Diru madarikatuak ongi harrapatuta gauzka. Bizitza ‘normala’ eraman behar duzu gainean zertxobait edukitzeko”. Sistema kapitalista-neoliberalari kritika dugu nagusiki, krisi garaiko liburuak da hau. Ekonomia feministak merkatuaren ordeztu erdigunean bizitza jarri behar dela diosku eta ikuspegi aldaketa honetaz aritzeko abiapuntu polita da nobela hau gure ustez. Olgak bizi nahi du, ez du hil nahi, eta horretaz dihardu bere testigantza: “Dirua. Beharbada egoerak du errua, kasualitateak, baina ordudanik ospitaleak eta banketxeak leku gorrotagarriki berdintsuak eta aldi berean erabat aurkakoak iruditzen zaizkit. Isiltasuna, errespetua, eliza modernoak bailiran. Nahi gabe uzkuertzen da bat horrelako tokietan sartzean. Agintarien gelan sartu da bat, eta haien esku sentitzen da. Saldoa zeroan geratu dela edota zer edo zer hilgarria duzula bat-batean jakin ahalko bazenu bezala. Zuzenean jomugan jarri zara, eta hor aurpegiarik gabeko zerbait dago, Jaungoikoaren bertsio estatistiko bat, bere apetaren arabera zure zoria”. ■

Amaia Alvarez
Uria





Gipuzkoako Foru Aldundia
Berria, Autonomia eta Herri Enpleguak



ANDARANGO UDALAK



bastero
KULTURGUNEAK



DEMODÉ QUARTET
EPA!
Otsailak 7, larunbata 20:00
basterokulturgunea.blogspot.com.es | ☎ 943.30.35.40



Tximinoarena egitea, rockaren eta dibertimenduaren salbazioa

GURE HERRIAN 80ko hamarkada mitifikatzeko joera handia badugu ere, 90ekoa pluralagoa eta emankorragoa izan zen. Eta bertan landutako estilo ugariaren artean azpimarragarria da, esaterako, hardcorearen barruan bizi izan zen bilakaera irudimentsua. Horren adierazle izan zen, nahiz eta ez den inon nabarmenduta ageri, Bermeoko Münsterland taldea. Hardcorearen ingurura beste estilo eta sentsibiltate bat elkartuta, hitzetan, melodietan eta erritmo aldaketan erreferente izan zen ama ezta aita ezagunik ere ez zuen taldea eta beraien *El Colgado* diskoa izan zen gailurra. Gerora, berorren abeslari Jose Ramon Riojak epe oso laburrean Atom Rhumban parte hartu zuen zingirako rocka, funkya eta bluesa jorratzen. Eta jarraian Los Paniks taldea sortu zuen, rock-and-roll biluzi eta txatarreroa erditu ahal izateko.

Rioja sorpresaz betetako musikari eta agitatzailea da eta orain gutxi, gure eszenan zeresana eman duten hainbat taldetako (Elfo Negro, Capsula, Los Paniks...) kideekin La Hora del Primate taldea sortu du Bilbo aldean. La Hora del Primategi rockaren eta musikaren esentzia berreskuratu nahi du: bat-batekotasuna, instintoen askatzea, dibertimendua eta basakeria, alegia. Eta erabat lortzen dute.

Euskal Primate School izeneko estreinako diskoan –Back To The Mono, Politburo Fiasco Recording eta DDTren artean kaleratu dutena– abesteaz gain, teklaturaren jotzen du Riojak, eta gogora ekarri digu Münsterland, abesteko eran zein narratutako istorio pertsonal, nihilista, txistagarri eta filmikoetan. Eta badu taldeak ezaugarri bitxi bat, instrumentuak



Euskal Primate School
La Hora del Primate

Back to Mono Records/ Politburo
Recording Fiasco/ DDT, 2014.

menderatu arren ondo jo nahi ez dutenek bakarrik lortzen duten emaitzaren xarma berezia, hain zuzen ere. Koktel basatia da hemen batutakoa, groovie, distorsio eta indarrez jositakoa, eroa, kontrolrik gabeko oreka erdiesten duena. Oinarria garagea bada ere, gai dira funkya eta punk-rocka mahaiaren bueltan batzeko (*Ingrid Bergman*); Make Up eta International Noise Conspiracy (*The plague*) kantu berean elkar ulertarazteko; psikodeliaren zuloan gogoz amiltzeko (*Bien común*); garagea jazz-corearen zurrunbiloan zorabiatzeko (*Primate back to mono*); Negu Gorriak-en rapa intentsitatez biderkatuta Zen Guerrillaren parera eramateko (*Primatea nai? eta harro nago*); zein zuhaitzen gainean dantza egiteko (*Salvaje*), besteak beste.

Garagea ezezik, rockari erritmoz, turbulentziaz eta ia zorabiatu artean bizitasun eroa ematea maite dutenek primate honetan aurkituko dute aspaldiko salbazioa. Zer esanik ez, Zen Guerrilla, Make Up, International Noise Conspiracy, Norman, Coltrane, Alice Donut, Nomeansno eta enparauen hutsunea gogoan dutenek, eta rockaren irmotasunaz aspertuta daudenek. ■

Iker Barandiaran



Hitz gezidunak

ITSAS-BELARRA BORONDATE, GOGO	OIHUAK, HOTSAK PERKUSIO TRESNA	... GERATU, HILIK GERATU	IKUSI (LABURDURA) SANTUREN APOKOPEA	LANDARE MOTA NAFARROA- KO HERRIA	GATAZKA, BORROKA ARDIAREN ILEA	ELEMENTU KIMIKOA METALEZKO
		ESKOLIER ZINKA				
PERTSONAIA- REN IZENA FRUTA- ARBOLA			SOKA MEHE 500			
					KARTA JOKO NAIZEN HAU	
AURRIZKI EKOLOGISTA	BERKELIOA BANKETXEEK KOBRRATZEN DUTEN SARIA					LEKU ATZIZKIA GOGO BIZIZ, IRRIKAZ
		EZ HANDI EZ TXIKI			LORE PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA	
NAHASTE AMERIZIOA						
	ROENTGEN BITS				KUTXA HANDIA INBUTU	
PAUSALDI (ALDERAN- TZIZ) ASPALDITIK		150 GAUERO EGIN OHI DENA	OLERKI LIRIKOA GORA JOAN	OXIGENOA JARDUN, ERAGON	JAINKO GREKOA HELBURU, XEDE	LEKEITIKO MUSIKA TALDEA
						NITROGENOA SODIOA
TREBE, ABIL HAIZE- ERAUNTSI BORTITZA			PERTSONAIA- REN ABIZENA DEUTERIOA			
				ITZALTSUAK		

Anagramak

Hitz bakoitza aurrekoaren hizkiez osatzen da,
borobil barruan dagoena gehituz.

□ □ □ □	(L)	□ □ □ □ □ □	(B)	□ □ □ □ □ □ □ □
□ □ □ □	(A)	□ □ □ □ □ □	(A)	□ □ □ □ □ □ □ □
□ □ □ □	(B)	□ □ □ □ □ □	(R)	□ □ □ □ □ □ □ □
□ □ □ □	(N)	□ □ □ □ □ □	(I)	□ □ □ □ □ □ □ □
□ □ □ □	(A)	□ □ □ □ □ □ □ □	(O)	□ □ □ □ □ □ □ □

1. Abiatze. | Musika tresna. | Seme-alaben semea edo alaba.
2. Amore eman. | Solairu. | Gezia, azkona.
3. Xedea. | Erlijiosoaren jantzia. | Zerbaiten inguruan birak egin.
4. Proba, lehia. | Landare usaintsua. | Ulertzeko ahalmen.
5. Bakoitzak bat. | Zerbait egiten hasten. | Lapurdiko hiriburua.

Soluzioak

1. Abio. Biola. Biloba.
2. Ertz. Ertz. Sateia.
3. Irua. Abitu. Birtatu.
4. Dema. Menda. Adimen.
5. Bana. Abian. Baiotia.

T	O	R	N	A	D	O	I	L	T	U	N	A	K
N	O	A	I	O	G	A	R	I	T	A	N	O	
N	A	S	P	A	L	D	I	D	A	N	I	K	
	O	I	O	O	C	I	A	T					
A	R	K	A										
I	O	E	R	I	D	E	R	I					
N	A	N	I										
E	T	J	E										
L	E	T	O	N	O	N	A	N	A	N			
L	E	T	O	N	O	N	A	N	A	N			
E	M	E	S	K	O	L	A	U	M	E			
S	G	O	I	S	D	A							

KOMIKIA MINTZAGAI


Literaturak adina merezi duelako

NONAHI aurkituko dituzu irakurle klubak, zeinahi hiritan –bai, Hego Euskal Herrian errazago–. Talde itxitan eta ez hain itxitan, edo plaza izan nahiko luketen inguru zabalgotan antolatzen dira, aurrez haututako liburuari norberak lekarkoen optikatik erreparatzeko, eta finean, liburuan mahai gaineratu duen gaiaren aitzakian solastatzeko.

Honez gero ehunka dira denera. Hitzen Uberan webguneko agendari begiratu ematea aski, tributxo hauei esker han-hemenka zer-nolako mugimendua dagoen ikusteko.

Halakorik, ordea, kostako zaizu aurkitzea. Lerrootan nabarmendu nahiko genukeen irakurle taldeak lehengaia du bestelakoa, komikia edo nobela grafikoa, eta horren ondorioz, gainerako guztia: parte-hartzaileak, solasgai nagusia (Sarriugarteren *Erraiak* eleberria edo Asterix eta Obelixen abentura bat ardatz hartzea, demagun, ez baita gauza bera), nabarmendu beharreko elementuak, hizketarako eta azterketarako irizpideak, motibazioa (euskara ikasten ari denari eta euskaraz mintzatzeko aukera behar duenari arreta berezia jarri baitzaie)...

Iruñean betiere, hileko azken ostegunetarako programatu den hitzordua duzue haxe. Zaldieroren *De Rerum Natura 5* bildumak emango dio hasiera programazioari,



otsailaren 26an. Martxoan, Paco Rocak sortu eta Bego Montoriok Astiberri argitaletxearen enkarguz itzuli duen lana izango dute mintzagai: *Zimurak*. Apirilean René Goscinny eta Albert Uderzo maisuei helduko zaie txanda. Hilaren 30ean, hain zuzen, *Asterix Legionarioa* izango baitute hizpide. Maiatzaren 28an, euskaraz izan dugun komiki-bildumarik txundigarrienetako bat

hartuko dute esku hartzean: Jose Carlos Fernandes portugésaren *Munduko bandarik txarrena* (1998-2003), Txapalaria argitaletxeak 2013an plazaratua. Programatuta dagoen azken saioa, nola ez, Harkaitz Canok, Jorge Alderetek eta Fermin Muguruzak ondutako *Black is Beltzari* eskainiko zaio.

Iluntzeko zortzietan izango dira beti. Katakarak-en, haustearen onomatopeia berritasunaren parera goratu duen liburudendan. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea



ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

www.bertsozale.eus/araba

2. FINALAURREKOA

OTSAILAK 1, igandea, 17:30ean
LAUDIO, La Salle aretoan

Gai-emaitza: Olatz Santocildes Martínez

Manex Agirre Arriolabengoa

Jagoba Apaolaza Kastro

Jon Ruiz de Pinedo Lekuona

Unai Mendibil Etxebarria

Felipe Zelaeta Txurruka

Zigor Enbelta Zugadi

Babesle nagusiak:

-
-
-
-
-
-
- Udala:**
- Antolatzailea:**
-

Google Glass, aurrera ala akabo?

AZKEN BI URTEOTAN behin baino gehiagotan irakurri ditugu Google Glassen inguruko berriak. Azkenetako batek zioen kirurgialari frantziar batek egingako ebakuntza online transmititu zela; bazirudien Google Glassek gero eta erabilpen esparru zabalagoa izango zuela.



GOOGLE

Baina urtarrilaren 15ean Googlek iragarri zuen urtarrilaren 19a izango zela azken eguna errealtate areagotuko betaurrekoak eskatzeko. Berri horri buruzko analisiak kontrajarriak izan dira. Batzuek uste dute Googlek, bi urteko saiakeren ondoren, betaurrekoak merkaturatuko dituela; beste batzuen iritziz, aldiz, konpainiak ez du garbi produktuarekin aurrera egin ala ez.

Ez dakigu Googlen estrategia komunikatiboaren azkeneko helburua zein den, baina Google Glassen 1.500 dolar inbertitu dutenak kezkatuta izango direla uste dugu, batez ere enpresak kaleratutako iragarkia oso hotza izan delako. ■




Bihotz artifizialari esker bizirik

URTARRILAREN 2AN bihotz artifiziala jarri dioten 68 urteko gaixo batek senda-agiria jaso zuen, Frantzia. Azken bi urteotan bihotz artifiziala ezarri dioten bigarren pertsona da. Lehenak 76 urteko zeuzkan eta 74 egun baino ez zuen iraun, gorputzeko beste atal batzuk oso kaltetuta baitzituen, antza.

Urtarrilean senda-agiria jaso duen gaixoak berriz, gazteagoa izateaz gain, egoera onean ditu beste gorputz atalak. Hala, medikuek uste dute bizimodu egokia izateko aukera edukiko duela.

Carmat izeneko bihotz artifizialak hiru kilogramoko pisua du, eta elektrizitatez hornitzeko bi bateria ditu. Gaixoak errebio arruntak baino ez ditu egin behar izango, eta erabat autonomoa izan da eguneroko bizimoduari dagokionez. ■



CARMAT



Zelula amen ikerketan iruzurra

Zientzian eta teknologian ikerketa ugari daude abian eta guztiak ez dira ikerlariak espero bezala amaitzen. Porrota, batzuetan, jasanezina da ikerlarientzat, eta zenbaitetan erreakzioa gezurretan aritzea izaten da. Iazko kasurik esanguratsuenak zelula amekin zerikusia izan zuen; ikerlari nagusiak, azkenean, bere buruaz beste egin zuen.

ttiki.com/299151
(Euskaraz)

Groenlandiako ibaiak uste baino azkarrago ari dira izotza itsasora eramaten

Berotegi efektuaren bidez Groenlandian izotza urtzen ari da, eta likidotzen den ur hori, izotz gainean geratu beharrean, ibaien bidez isurtzen da itsasora. Groenlandiako gainazalaren %80 izotzak estalita dago, eta hura urtzeak zerikusi handia du itsas mailaren igoerarekin.

ttiki.com/299152
(Gaztelaniaz)

Sulfatoak arnasten dituzten mikrobioak daude itsas hondoan

Hiru kilometrotik beherako itsas hondoan sulfatoak arnasten dituzten mikrobioak aurkitu dituzte. Antzeko gertaera jazo izan da hainbat urtegitan, baina inoiz ez da halako mikroorganismo atzeman hain sakonera handian. Mikrobio horiek Lurreko bizidun zaharrenetakoak direla uste dute ikerlariak.

ttiki.com/299156
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealtatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Onddoekin ondo

BASOA sekulako janari ekoizlea eta berebiziko biltegia da. Bertan “hartu eta jan” da lelo zabalduena. Sarrienik, hartzea da arazoa. Basotar ugarik hartu ez, harrapatu egin behar baitu, eta maiz, harrapatu eta hil, baldin eta jan nahi badu. Landareak inor hil beharrik gabe elikatzen dira. Lurretik sustiratu eta airetik hostoratzen dituzte beharrezko gaiak. Zeregin horretan, era guztietako adiskideak dituzte. Onddoak dira ezagunenak.

Onddoek gure begietan arras ezberdinak diren bi zati dituzte: lurpekoa eta lur gainekoa. Lur gainekoa “fruitua” da, guk bildu ohi dugun perretxikoa. Lurpeko eta lurrazaleko hifa edo harizpiek basoko bizitzako urrats garrantzitsua osatzen dute: hildako hondar organikoak ostera bizitzaren ziklora bideratzen dituzte. Onddoek jariatzen dituzten entzimek abiatzen dute, berriro, sekula bukatuko ez den katea. Hondarrak desegin eta landareentzako elikagai bihurtu



Zizahoria (Cantharellus cibarius).

tuko dira. Elkarlanaren adibide da basoa. Elkarlana kaosean. Basoa iraupenaren eta biziaren oihana da. Batzuek aurrera egitea lortuko dute, eta beste batzuk hondar bilakatuko dira. Hondar hori ere beharrezkoa da. Onddorik ez legoke hondarrik gabe, eta, onddorik gabe, landararik ez.

Onddoaren eta landarearen arteko loturari “mikorrisa” deitzen zaio. *Mykos* (onddoa) eta *rhizos* (sustrai) hitz grekoek argitzen dute esanahia: sustraietako onddoa. Nahitaezko elkarlana osatzen dute:

onddoek jakiak eta ura, eta landareek karbohidratoak eta bitaminak, eskuratu eta eskaintzen dizkiote elkarri. Ezagutzen diren landareen %95ek mikorrizaren bat osatzen dutela diote. Elkarlan guztietan bezala, bakoitzak bere gustuak eta aburuak ditu. Onddoak landarea aukeratuko du, eta landareak, onddoa. Horregatik, belaze garbian ez dugu esnegorririk topatuko, ezta pagadian udaberriko zizarik ere. Bizi, esnegorria pinuarekin biziko da;

ziza, berriz, belarrarekin.

Hori da landatutakoan landare asko hiltzearen arrazoietakoa bat. Muintegian lur “antzuan” hazten da landarea, eta, onddorik gabe, ikaragarritzko ongarriketak eta zaintzak behar izaten ditu. Lurrera aldatzen dugunean, sustrai soilak ditu, onddorik gabe... Eta aparte-ko zaintzarik gabe... Gero eta gehiago erabiltzen dira onddoak landare ekoizpenaren lagungarri gisa. Merkeago eta landare hobea. ■



Tartikua

PURGA ETA OSASUNERAKO ONA. Bakailaoaren gibelko olioaren tankerako lana egiten duen akain- edo bakasta-belarrarekin egiten den errizino olioaren tankerakoa egiten da tartikuarekin, *Euphorbia lathyris*. Izerdia zuri-zuria eta lodia du. Erre egiten du, kontuz hurbildu ezpaintedara edo begietara...

Hortik etorriko zaio ezaguna egiten duen berebiziko sona: satorrak eta satainak uxatzen ditu. Tartikua dagoen baratzean sartuko den satorrik ez da. Batzuek ikaragarritzko lanak hartzen dituzte: estraktua kendu, eta hartzitu ondoren sator-zuloetan jartzen dute. Beste batzuek tartikuaren kimu berriak ebaki eta bertan sartzen dituzte. Nire iritziz, tartikua bera baratze bazterretan izatea da onena. Baratzetan lurpetik sartu nahi duenean, satorrak sustraiak topatuko ditu eta haiek ere hozkadaka edo aztarrika



JAKOBA ERREKONDO

hausten dituenean erre egingo du. Nik behintzat, etorritako bidetik laster alde egingo nuke.

Argazkian tartiku landarea, loreontzian, Lekeitioko Usotegiko azokako saltoki batean. ■

Wall Street esklabotzari lotuta

HUDSON IBAIAREN AHOA, 1625. Mendebaldeko Indietako Nederlandar Konpainiak Amsterdam Berria sortu zuen, ibaian zehar abiarazitako larru salerosketa kontrolatzeko aukera ematen zien kokalekua. 1653an, bertakoen nahiz ingelesez erasoez babesteko, kolono herbeheretarrek zurezko eta buztinezko hesia eraiki zuten Amsterdam Berriko iparraldeko mugan. Edo zuzen esanda, hesia eraikitzeak agindu zuten, harresia benetan jaso zutenak 1627tik aurrera koloniar eramandako esklabo afrikarrak izan baitziren.

Handik urte batzuetara ingelesek hesia bota arren, Wall Street (harresia-
ren kalea) izenak oraindik esklaboek eraikitako babes hura dakar gogora. Eta hesia eraiki bakarrik ez, basoak soildu zituzten eta bideak, errotak, etxeak, kaia, espetxea eta holandarren eliza ere jaso zituzten, geroago ingelesez eliza eraikiko zuten bezalaxe.

XVII. mendearen amaieran eta XVIII.aren hasieran, hiriak dagoeneko New York zuen izena, ingelesez eskuetan zegoen, eta esklaboen lana oinarri, hazkunde bizia izan zuen. Doako langile haiei are eta probetxu handiagoa ateratzeko aukera zegoela ikusirik, esklaboen salerosketan hasia erabaki zuten hiriko merkatariek. 1711n New Yorkeko udalak hiriko lehen esklabo azokaren sorrera onartu zuen eta, hain zuzen, merkaturatu Wall Streeten jartzea erabaki zuten. Meal Market (janari azoka) esaten zioten garaua eta haragia ere saltzen zutelako, baina negozio nagusia gizakien salmenta zen, eta berehala Wall Street erabakigarria izango zen esklaboen Atlantikoan zeharreko merkataritzan. Giza salgai gehienek hirian denbora gutxi egin arren, XVIII. mendearen lehen erdian New Yorkeko biztanleen %20 esklaboak ziren.



THE NATION

Esklabo ontziak Afrikatik New Yorkera iristen ziren eskulanez gainezka, nagusiki kotoi sailetan jarduteko. Bide batez, kotoia bera New Yorketik banatzen hasi ziren. Jakina, itsasontzien aseguru-etxeek, merkatariek eta bidaiak nahiz lurjabeen jarduerak finantzatzeko zituzten bankuek ere “inbertsioetatik” hurbil egon nahi zuten eta, hala, geroz eta negozio gehiago bildu ziren giza azokaren inguruan.

1792ko maiatzaren 17an, Wall Streeteko 68. zenbaki pareko platano baten gerizan, 24 artekarik eta merkatarik hitzarmena sinatu eta New Yorkeko Burtsa izango zenaren hasia erein zuten. Horrenbestez, gaur egun Wall Streeten kotizatzen duten enpresa ezagun askok esklaboen salerosketan inbertituz ekin zioten bideari, gaur egun esklabotza metodo sotilagoak erabiltzen dituzten arren: Bank of America, Aetna Insurance, J.P. Morgan, Lehman Brothers, Wachovia Bank, Royal Bank of Scotland... ■



Arrastoak

9.000 urteko garagardo gozoa



PLATONEK esan zuen: “Garagardoa asmatu zuena gizon jakintsua zen”. Ez Platonek ez guk, ez dakigu nor izan zen gizon —edo emakume— hura, baina Neolitoaren hasieran, duela 12.000 urte inguru asmatu omen zuten. Patrick McGovern arkeologoak Jiahuko (Txina) aztarnategi neolitikokoan 9.000 urteko garagardo arrastoak aurkitu zituen, zeramika zati batzuetan

itsatsita. Horiek aztertu eta edabearren osagaiak bereizi zituen: garagarrak gain, arroza, mahatsak, eztia eta elorri txinatarraren fruituak zituen garagardo zahar horrek. Sam Calagione garagardogile estatubatuarrek osagai horiekin errezeta berreskuratzen saiatu zen, eta emaitza Chateau Jiahu izenez merkaturatu zuen (argazkian). 9.000 urteko garagardoa interneten dago salgai. ■

Beste erresistentzia modu bat lurralde okupatuetan

Lurra bada palestinarrek jasaten duten okupazioaren gakoa, nekazariak ditugu haren aurkako borrokaren lehenengo lerroan, bertan laborari izatea beste erresistentzia modu bat baita. Euskal ordezkaritza batek Palestinako nekazarien eskubideen urraketak gertutik ezagutzeko parte hartu du La Vía Campesinak antolatutako elkartasun bidaia batean.

| ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN |

Argazkiak: Nuria Gonzalez

GIZAKION BIZITZA babesteko “nekazarien eskubideak babestea eta betearaztea garrantzitsua da”, dio La Vía Campesinak (LVC) sortutako Nekazarien Eskubideen Gutunak, Nazio Batuen onespenez izatea espero dutena. Horren harira

egin zen azaroaren 1etik 9ra bitartean, LVCK eta Palestinako Union of Agricultural Work Committees (UAWC) sindikatuak Zisjordania eta Gazara antolatutako bidaia. Nazioarteko elkartasuna adierazi eta okupazio egoera salatzea zuten helburu.

Larriak dira mundu osoan laborariek jasaten dituzten arazoak, baina are larriagoa da egoera Palestinan, lurra bereganatzea baita gatazkaren muina. Bestalde, ezin ahaztu emakumeek zigor bikoitza dutela: palestinar eta emakume izateagatik.



Sionisten “biztanlerik gabeko lurra, lurrik gabeko herriarentzat” gezurraren babespean gauzatu du Israelgo Estatuak Palestinako okupazioa: 1947ko azaroan, NBen osoko bilkurak estatu bi sortzeko erabakia hartu zuenean, Palestinak 1.972.000 biztanle zituen: haietatik heren bat (608.000) ziren juduak –gehienak aurreko 30 urteetan Europatik joandakoak–, eta lurren %6 baino ez zuten. Harrez geroztik, etengabea izan da palestinarren lurren desjabetzea edo, beste era batera esanda, palestinaren herria desagerrarazteko prozesua.

LVCko kideak diren EHNE Bizkaia eta ELB sindikatueta kideak eta beste talde batzuetako partaideak izan ziren lur horiek bisitatzen, nekazari, artzain eta arrantzale palestinarren kinka eta borrokaren berri gertutik ezagutu eta gurean zabaltzeko.

Okupazioa garatzeko tresneria

“Laborari garen heinean, nekazariak okupazioa zelan bizi duten jakin nahi genuen. Palestinaz ari garela, ez dugu ahaztu behar gatazkaren lehenengo lerroan daudenak laborariak direla”, mintzo zaigu EHNE Bizkaia sindikatuko Malu Egiluze, han ikusitakoaz. ELBko Ana Badosek hartu du hitza: “Okupazioaren gakoa lurra da. Israelek lurra bereganatu nahi du, eta horretarako bertan dagoen jendea kanporatu beharra dauka”. 1948an Israelgo Estatuak sortu zenetik, asko izan dira palestinarrek beren lurretatik kanporatzeko hark erabilitako tresnak; aurrenekoa, arabiarrek sarraskitzea eta beren herriak ezabatzea izan zen. Israelgo milizia terroristek behartuta, 1949ko ekainean, 940.000 ziren errefuxiatu palestinarrak. Urte bete lehenago, 1.364.000 arabiar bizi ziren Palestinan. Beren ondasun guztiak konfiskatu zituen Israelek, 1948-1950 tartean sortutako legediak –ez dauden jabeen legeak– haien kudeaketa Knesseten (legebiltzarra) eskuan laga baitzuen. Kolonoek bereganatzen dituzte lurro, gehienbat.

Nazio Batuek aldarrikatutako ebazpenak ere baliatzen dituzte israeldarrek lurra bereganatzeko,

hala nola, 1948ko abenduko 194. ebazpena: “Ebazpenak derrigortzen du errefuxiatuek etxera bueltatu nahi ez izatekotan, galdutako ondasunengatik kalte-ordainak ematera. Ez da baina palestinaren aldekoa: kanporatuek ez dute itzultzerik, eta kalte-ordainak izatekotan, sos batzuk besterik ez dira: ez dizkiete sekula galdutako lurra bueltatuko”, dio Badosek.

“Harresia zabalduz, lurra lantzeko funtsezkoa den ura ere kentzen ari zaie”

David Lopategi,
Bizilur elkarte

Harresia ere baliogarria da okupatuta ez dauden lurra *de facto* bereganatzeko. EHNE Bizkaiko Joseba Koskorrotzak honela azaldu digu: “Israelek harresia baliatu du lur gehiago bereganatzeko. Eraikitakoaren %20k baino ez dio Nazio Batuek 1947an ezarritako muga edo marra berdeari segitzen. Harresiaren 721 kilometroak bukatuta, Zisjordaniaren %10 Israelgo aldean geratuko da”.

Negozio borobila

Lurra lapurtzea ez da harresiak eragindako kalte bakarra. “Asko dira hesiaren bi aldeetan lurra dituztenak –dio Badosek–, eta hura zeharkatzeko ezinbesteko baimena behar dute. Eta behin hori lortuta, militarrek sarrera debekatu ohi diete, segurtasun neurriak aitzakia hartuta. Hala, laborarien eguneroko lana oztopatzen da”.

“Palestina guztiz okupatzeko, inportantea da bere nekazal sistema ahultzea”

Kelo Arribas,
Uztaro kooperatiba

Uztaro kooperatibako Kelo Arribasek gatazkaren beste alde bat agertu digu: “Palestina guztiz okupatzeko inportantea da oso bere

nekazal sistema ahultzea, izan ere, israeldarren menpe dago. Palestina-
rrek produktuak bertako merkatuetan baino ezin dituzte saldu, eta israeldarrek orduak eta orduak pasazten dizkiete erosten dituzten produktuak ustel daitezen”. Horiek ez dira amarru bakarrak: “Israelek palestinaren produktuen salneurriak jaisteko, merkeagoak diren bere produktuak sartzen ditu. Palestinarrek behar duten guztia inportatu behar dute eta mugak kontrolatzen dituen Israelek gero eta zerga altuagoa ezartzen die, baita bere nekazal-produktuak –ongarriak, kasu– saldu ere, kalitate eskasekoak eta oso garestiak”.

Hala, palestinaren etxaldeak ez dira errentagarriak, eta azkenean Israelek bereganatzen ditu, landu gabe daudelako. Lurrei eusteko, bestelako zereginetan lan egin behar dute palestinarrek, kolonietan eta Israelgo fabriketan normalean. Okupazioaren negozioa borobiltzen du horrek, beraiek baitira langilerik merkeenak. “Laborari izatea, beraz, beste erresistentzia modu bat da”, laburbildu du Badosek.

David Lopategi Bizilur elkartekoa da eta zinegotzi dabil Bilboko Udalean, EH Bildu ordezkatzuz. Okupazioaren beste helburu bat ikusarazi digu berak: “Akuiferoak bereganatu nahi dituzte, baliabide naturalak lapurtu eta horretarako ere harresia erabiltzen dute. Lurpeko urak Palestinan daude, ez NBk Israeli emandako lurretan. Harresia zabalduz, lurra lantzeko funtsezkoa den ura ere kentzen ari zaie palestinarek. Uraren %80 Israelen esku dago orain, gainontzekoa arabiarrentzat da”.

Palestinarek kontsumitzen duten ur gehiena pozoituta dago, baita Gazako kostaldekoa ere, bertako estolderia-sarea bonbardaketek suntsitu dutelako. Bestalde, 1993ko Osloko Itunak arrantza egiteko 20 itsas miliako eremua eman bazien ere, etengabeko eraso militarrek arrantzaleak itsasertzetik hiru itsas miliara lan egitera derrigortzen dituzte, arrain-sardak ugaltzen diren pozoituta uretan alegia.

Okupazioari aurre egin

Okupazioa negozio biribila da Israelentzat. Palestinaren baliabide



Israelek amarru ugari egin ohi ditu palestinar laborarien lana oztopatzeko; hala, palestinarren etxaldeak ez dira errentagarriak izaten eta azkenean sionistek bereganatzen dituzte.

natural guztiak ostu ez ezik, nazio-artetik laguntzarako emandako diruaren %40 eurentzat eskuratzea lortzen baitute: euren armadak txikitu duena euren enpresek berreraikitzen dute. Horren kontra ezer egiterik al dagoen galdetu diegu Palestinan izandako euskal ordezkari: haien erantzuna BDS kanpaina sustatzea da. Lopategik azaldu du zertan datzan: “Alde batetik,

lurralde okupatuetan dauden enpreetan ez inbertitzeko deia egiten du kanpainak; bestetik, horietan ekoiztutako produktuak ez erosteko; eta azkenik nazioarteari eskatzen zaio zigortu dezala Israel, Nazio Batuen ebazpenak bete ditzan”. Joseba Koskorrotzaren ustez, “funtsezkoa da israeldarren poltsikoa ukitzea beraiek ere beren Gobernu presionatu dezaten”.

LVCK bultzatzen duen Nekazarien Eskubideen Gutuna ere onuragarria dela nabarmendu du EHNE-Bizkaia sindikatuko Ana Gonzalezek: “Gutunak bizitzarako eskubidea onartzen du. Palestinan, lurra, haziak, ura, landresnak edota bizitza duina edukitzeko eskubidea suposatzen du horrek”. ■



KUBAKO BLOKEOAREN AMAIERA

Habanako espaloi lurmenduak

Kubak eta AEBek euren arteko harremanari berriz ekingo diotela iragarri zutenetik hilabete baino gehiago igaro da, eta hilaren 21 eta 22an herri horietako ordezkariak bana bildu dira lehen aldiz Habanan, immigrazio politikaz eta harreman diplomatikoez hitz egiteko. Zer arnasten da ordea Neptuno kaleko lokaletan? Zer La Rampako espaloietan edo Malekoian?

Testua eta argazkia:

| URKO APAOLAZA AVILA |

URTETAN KUBAKO AGINTARI nagusietakoa izan den Ricardo Alarcón-ek esan du Obamak historiari “timoi-kolpea” jo ziola 2014ko abenduaren 17an. Egun horretan AEBetako presidenteak onartu zuen mende Erdiko blokeo ekonomikoa porrota izan dela eta Kubarekin berriz harremanetan hasteko bideari ekin zion. Nekez sinetsiko luke hori 2005ean Alarcónek, Donostiako Bulebarrean txapela jantzita ezagutu genuenean. “Nahiko nukeena da ahalik eta denbora gehien bizitzea, munduan izango diren aldaketen lekuko izateko”, esan zigun ordukoan. Eta hala izan da.

“Ricardo Alarcón? Non dago putaseme hori?”. Aho-bilorik gabe hitz egin du Luisek, Habana zentroko San Martín eta Amistad kaleen arteko lokal ziztrin batean mojitoa edaten dugun bitartean. Beretzat Kuban hiru gauza daude ondo: osasuna, hezkuntza eta segurtasuna. Gainerako guztia “kaka zaharra” da.

- Obamaren erabakia zer da zuontzat, garaipen bat?
- Jakina!
- Kubako herriarena?
- Ez, goikoen garaipena.

Ehorztetxe batetan egiten du lan Luisek, turistekin berriketan ez dabilenean. Euskaldunak lagunak ditu, lagun zuen Joxe Mari Larretxea

hernaniarra. “Artikulu hori idazten duzuenean, jarri ezazu beltz batek galdetu zizula ea euskaldunek zer pentsatzen duten AEBen eta Kubaren arteko erlazioaz”.

Euskal Herriko sektore eta mugimendu zabalek aspaldi erakutsi izan dute sentiberatasun handia Kubarekiko. Blokeo mediatikoa apurtzeko hedabide garrantzitsu bihurtu den *Cubainformacion.tv* ataria bertako eragileek sortua da, esaterako. Abenduan, AEBetako talde anti-iraultzaileetan infiltratuta atzeman zituzten bost preso kubatarren aldeko Bostak askatu kanpaina egin zen, 25 udalerritan onartu zen eskaera hori.

Itzuli dira! dio eraikin ofizial batean zintzilik dagoen pankartak. Bost presoak etxeratzeko aldarria inperialismoari aurre egiteko eta elkartasun sareak sortzeko tresna garrantzitsua izan da

Itzuli dira! dio eraikin ofizial batean zintzilik dagoen pankartak. Bost presoak etxeratzeko aldarria inperialismoari aurre egiteko eta elkartasun sareak sortzeko tresna garrantzitsu bihurtu zen azkeneko

urteetan. Horregatik, Obamaren gobernuak preso-trukea onartu izana, blokeoari amaiera emango dion berme gisa ulertu da. Kongresuan ozen esan du estatubatuarren buruak: “*In Cuba we are ending a policy*”; baina ikusteko dago blokeoaren arkitektura legala desegiteko nahikoa gatzik izango ote duen.

Itxaropena eta zuhurtzia

Behinola Habanako harresitarrak banantzen zuen Zulueta kalea koloretu eta zutabetsu ikusten da taxi lanak egiten dituen almindrón edo tramankulu auto-propultsatuaren leihatilatik. Habana zaharretik irteetan ordea, bost hamarkadako intentsitate baxuko bonbardaketa jasan duen hiria suma liteke.

“Ez pentsa! Toki asko berritzen ari dira”. Itxaropena nabari da gidariaren hitzetan; *Gramma* egunkarian leitu du automobilen industriak interes handia duela Kuban sartzeko. Botere ekonomikoen presioak zerikusia izan omen du AEBetako administrazioaren jarra aldaketarekin. Inbertitzaileak gose dira. Bada esaten duenik Habana zentroa berrurbanizatzeko etxebizitzak husten hasten direnean, orduan nabaritutako dutela bertan bizi diren familiek blokeoa amaitu dela. Itxaropena eta zuhurtzia: “Esaera zaharrak dio deabruak ez dizula ezer emango, baina emanaz gero, pozoituta”.



Habanako Malekoia itsasoaren olatuek ziprztinduta, 2015eko urtarileko goiz batez. Hainbeste urtetako ezin eramana ez da hain erraz urtuko, inperioak segituko du azpilanean.

Hainbeste urtetako ezin eramana ez da erraz urtuko, inperioak segituko du azpilanean. Baina orain, behinik behin, albisteak errenkadan datoz: Washingtonek arindu berri ditu estatubatuarrek Kubara bidaiaitzeko zituzten lizentzia zorrotzak, eta irlara dirua bidaltzeko gutxieneko kopurua ere 500 dolarretik 2.000ra igo du. Kubako Banku Zentralak, bestalde, 1.000 peso arteko billeteak jaulkiko ditu herrialdeko bi moneten arteko ezberdintasuna murrizte aldera.

San Sebastian egunaren bezperan AEBetako senatari demokraten delegazioa izan zen Habanan, Raul Castroren gobernuako ministroekin berbetan. Aurki enbaxada bat zabalitzeko aukera berriz ere mahairatu zen bisitaldi horretan.

Kontakizun izoztua

Kuban lehenago ere izan dute inpe-

rioaren egoitzarik urte luzez. Habanako Arma Plazan zutik dirau Kapitain Nagusien Palazioak, Espainiako gobernadoreen etxea zena. Parean, *ceiba*, aitzinean esklabo beltzak zigortzen zituzten arbolak. XIX. mende hasieran tenplutxo bat eraiki arazi zuten haren atzean eta geroztikako kontakizunak –Díaz de Espada apezpiku arabarrak sustaturik– askatasunaren ikur bilakatu zuen. Boterea alde batean, askatasuna bestean. Eta erdian liburuak.

**Ikusteko dago Obamak
blokeoaren arkitektura
legala desgiteko
nahikoa gatzik izango
ote duen**

Federico ingeniaria da estudioz, baina liburuak saltzen ateratzen du lana. Arma Plazako parkean *Cheren* eta Fidelen kronika ugarien artean historia liburu baliotsuak ere aurkitu daitezke. Erotu dugu liburuzalea, azukre merkataritza eta ferrokarrilen eraikuntzari buruzko lanez galdetza. “Nahi duzu jakin egiaz zer gertatu zen? Ba ez irakurri oraingo liburuak, kapitalismo garaikoak baizik”, esan digu. Eta zerrendatu dizkigu Uztailaren 26ko Mugimenduaz gain izan ziren beste gerrillari taldeak eta direktorioak: “Horiek ere egin zuten iraultza, ez Fidelek baka-rrik”.

Pixkanaka eraikin kolonialak berreraikitzen ari diren Karibeko perla hone-
tan, batzuen eta besteen
kontakizunak izotzezko
habeak ditu oraindik. ■



EUSKARAREN OFIZIALITASUNA UZTARITZEN

Legezkoa ez, baina zilegi bai

Uztaritzeko Herriko Etxea auzipetua izan da. Prefetaren akusazioa: “Euskara frantsesaren gainetik ezarri nahi izatea”. Ordea, herriko hizkuntza arduradun If Matxikotek honela erran digu: “Ez. Euskara epaitu dute frantsesaren maila berean jartzeagatik”. Paueko Administrazio Auzitegiak epaia eman aitzin solastatu gara berarekin. Ebazpena jakina zen.

| MIKEL ASURMENDI |

IF MATXIKOTEK epaia ezaguna dela dio: “Gure erabakia deuseztatuko dute. Hori bagenekien erabakia hartu aurretik”. Alta bada, zer dago herria bozen bidez gobernatzea irabazi zuen Uztaritze Bai taldearen egitasmoan? Herri honen ibilbide berria marraztu digu hizkuntzaren ardura duen hautetsiak.

29 hautetsietatik 22 alde

Iazko martxoan berriro ziren Herriko Etxeko kontseiluak Iparraldean. Uztaritzen –Dominique Lesbats auzapeza zen ordura arte; Errepublikako doktrina politikoen ildokoa– Uztaritze Baik hartu zuen Herri Kontseilua. Bruno Carrere auzapez berriaren agintepean, hauxe izan zen lehen erabakia: “Euskara hizkuntza ofiziala da Uztaritzen, frantsesaren hein berean”. Udalbatza osatutako 29 hautetsien gehiengoak ebatzi zuen, hots, Uztaritze Baiko 22 hautetsien baiezkoarekin. Oposizioa inork ez zuen kontrako bozik eman. Biharamunean, estatuaren ordezkari Durand prefetak auzitegiatar eman zuen erabakia. “Erabakia ez da inoren aurka hartua izan. Demokratiakoki hartua izan zen, herritarren eskubideetan oinarritua, demokraziaren oinarria omen diren testuetan funtsatua. Alta, epaiak beti erran duguna berretsiko du: Frantziako demokraziak ez ditu euskal herritarren eskubideak errespetatzen”, dio hautetsi abertzaleak. Areago esan ere: “Erabakiarekin herritar guztientzako eskubide bera bermatu nahi izan dugu, euskaraz nahiz frantsesez”.



ARGIA/ M. A.

Herriko Etxeko Hizkuntza Politikarako arduraduna da If Matxikote uztariztarra. Uztaritze Baiko hautetsi abertzalea. Bruno Carrere auzapezaren taldekidea.

6.000 biztanle. 75 udal langile

Frantziako Iraultzara arte Uztaritze Lapurdiko hiriburua izan zen. Uztaritze Bai udal taldearen oinarrian 1989an eratu zen Herria Bizi Dadin (HBD) dago. Talde abertzalea, legealdiz legealdi, hautetsi bat izatetik bost izatera iritsi zen. Boz nahikotxo bildu arren, Frantziako hauteskunde sistema proportzionala izaki, bere indarra ez da ongi islatu izan Herriko Etxean. Honen aurreko legealdian bost hautetsi lortu zituen. Ezkerreko hautaigaitzarekin aliatu ziren arren, %2ren-gatik ez zuten lortu Lesbats auzapeza kargutik kentzea. Uztaritze Bai hautaigaitza osatu zuten iaz, Herria Bizi Dadin taldeak bereziki bultzaturik. Hainbatek *Euskararen Ofizialtasuna*

Udaletxean aldarrikatzea erabaki ausart gisa jo du. If Matxikotek bestela dio: “Guretzat ez. HBD taldeko-entzat ez, guretzat gure politikaren segida da. Zerrenda osatu genuenean bost puntu jarri ziren, horietako bat euskara hizkuntza ofiziala izatea. Jende berria heldu da gure zerrendara. Batzuk abertzaleak, beste batzuk ez hainbeste”. Alabaina, bozetarako programa ontzat eman zuten denek. Matxikotek dienez, hizkuntza politika gauzatzekoan, euskarari estatus hori eskainiko zitzaioala argi eta garbi idatzi zuen Uztaritze Baik: “Euskara frantsesaren hein berean dela edo hala nahi dugula”. Hartutako erabakia ez zen funts gabea, aurretik adostuta zegoen. Galdera inposatzen da:

Ofizialtasuna bai, baina Herriko Etxea elebiduna al da? Arrapostua: “Ez, ez oraindik. Herriko Kontseiluan euskaldunak herena baino gutxiago gara. Batzarrak frantsesegiz egiten ditugu, batzuek euskaraz tarte-ka, baina ez guk nahi bezainbeste”.

Uztaritze Bai hasia da neurriak ezartzen Herriko Etxea elebidun bihurtzeko. Hasteko, harrera euskaraz bermatzeko. Hastapenetik langileekin egin zuten plangintza, 75 dira Udaletxean: “Nork zekien euskaraz. Nork ez. Zein mailan? Zein zen arrangura? Inplikazioa ez baita denontzat bera, nahiz eta denok erran elebitasuna onartzen dugula”.

40 udal langile inguruk erran zuten ikasi nahi dutela, eta ari dira hori gauzatzeko manera lantzen. Alta, horrek aurrekontu bat eskatzen du, antolaketak maila gutxienekoa. AEKrekin elkarlanean aritzea: “Harremanak biziki emankorrek dira. Herriko Etxeko zerbitzu buruen artean dagoen euskaldun kopurua ezagutzean harritu ginen. Zorritzarez, erabiltzeko usaia eskas dutenez, frantsesegiz baino ez dute egiten”.

Hizkuntza politikaren arduradun nagusiak dioenez, herritarrek borondatea izanez gero eskubideak bermatzea lortu daiteke. Hasteko, herrian borrokatu behar da. Herriko Etxea da demokraziaren biltzar hurbilena, erabakiak hartzeko zilegitasuna duena. Uztaritze Baiko ordezkariak emandako urratsa naturala izan da bere hitzetan: “Sei urteko agintaldia dugu hizkuntza politika eraginkorra plantan ezartzeko. Estatuak gure erabakia legez kanpo ezarriko du, baita jarriko dituen oztupoak ezagutuko ditugu ere. Hala ere, guk aukerak ikusten ditugu herri politika beste gisa batez egiteko”.

Aitzindariak

Iparraldeko beste herriko etxeetan azken legealditan agintzen duten kontseilu abertzaleak badaude, baina

Uztaritze Bairen tamainako erabakirik ez dute hartu orainokoa: “Bada garaia erakusteko pauso berriak emateko gauza garena. Jendea kontzientziatzeko, hasteko. Eta ez da hautetsi euskaltzaleen afera soilik, denon egitekoa da. Gure erabakia euskararen inguruan dauden nola-baiteko mamu txarrak uxatzeko baitetzpadakoa izan da. Ez soilik Estatuari begira gure eskubideak aldarrikatzeko, herritarrei begira euskaraz aritzeko eta berau sustatzeko baizik”. Alegia, teoria gauza bat da eta praxia beste bat. Euskararen “mamua” zabaltzeko joera dago inola ere, euskara inposatuko dutena delakoa. Halaxe diosku Matxikotek: “Bai, noski. Alabaina, guk, lehen urte honetan, Herriko Etxean egonik, euskararekiko gure jarrera hobeki azaldu ahal izan dugu. Testuak ongi lantzen ari gara. Gaia ez dela ergelkeria erakutsi dugu. Zilegi dela hizkuntza defendatzea. Badira beti ‘beldurrak’, badira ‘ezkutuan edo ageriko’ kontrako jarrerak. Kontua da jarrera horiek ongi ‘artatzea’. Jendearen ‘uzkurtasuna’ ongi lantzea”.

“Guk euskara ikasi dugu euskaraz bizitzeko. Ez dugu hautu hori egin itxura egiteko, hautu bat da, ez hautu polita edo ausarta”

**If Matxikote,
Uztaritze hautetsia**

Adibidez, udal-biltzarreko oposizioa batek zalantzak agertu zituen euskararen politikaren inguruan. Hizkuntza politikaren arduradunaren erantzuna hau: “Guk ez dugu euskara inposatu nahi. Alderantziz, euskararen aukerak eta eskubideak landu nahi ditugu frantsesaren heinean bermatua izan dadin”. Errezelo txarrak

direnean, jarrera hau: berauek ongi hartu eta egoki uxatu aitzina egiteko.

Paueko Administrazio Auzitegiaren ebazpena edozein dela ere, Herriko Etxeak norabide horretan egingen du politika: “Guk, agintean gauden bitartean, ohar guztiak kontuan hartuko ditugu, herritarrekin batera landuko ditugu, baina euskararen erabilerak bermatuz betiere”. Herriko Etxearen agintea aldatu liteke etorkizunean, hala balitz ere, anartean, Uztaritze Baik sustatutako gobernu berriaren politika ongi azaldu eta garatu nahi dute: “Gure iritzi bera ez dutenek agintea hartzen dutenean ikusiko dute zer egin. Anartean, begibistan geratuko da euskararen alde egitea ez dela herritarren aurka egitea. Inportantea guretzat da erakustea euskarak baduela izatea, baduela tokia eguneroko bizitzan”.

Herriko Etxearen erabakiak oihartzun zabala izan du Euskal Herri osoko hedabideetan: “Batzuek ez zuten erabakia espero nonbait, eta horregatik oihartzuna. Gure belar-naldikoentzat harrigarria baino naturala da. Uztaritze Bain denetarikoa gaude. Denok ez dugu ibilbide politiko bera. Alta, gutako zenbaitek euskaraz bizi izan nahi dugu, hori izan da gure nahia beti, xede horretan borrokatu dugu. Noski, orain, Herriko Etxeak, erakunde demokratiko herriko batek erabaki administratiboa hartu du. Horixe lorpena”.

Lorpen handia izan da, bai horixe. Erratetik egitera aldea baitago: “Bai, dena dela ere, nire euskalduntasuna nik hautatu nuen. Guk euskara ikasi dugu euskaraz bizitzeko. Ez dugu hautu hori egin itxura egiteko, hautu bat da, ez hautu polita edo ausarta”.

Errepublikan ez dago frantsesaz beste hizkuntza ofizialik. Euskara ez da legezkoa. Uztaritze Herriko Etxeak euskara zilegi nahi du ordea. Herriak hala erabakita. Demokratikoki. ■



Babeslea: Hondarribiko Udal



Zein izango dira Syrizaren lehenbiziko neurri ekonomikoak?

Syrizaren lehen gobernuan ekonomia ministro izango den Yánis Varoufakisen hitzetan, Europak ez dio Greziari iturria itxiko “dauzkagun proposamen arrazionalak azaltzen badizkiegu”.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

YANIS VAROUFAKIS (1961) izan daiteke Syrizaren lehen gobernuan Alexis Tsiprasek ekonomia ministro izendatuko duena. *The Global Minotaur* liburuaren idazle, George Papandreou lehen ministroaren (PASOK) aholkulari aritu zen, haren kritiko zorrotz bilakatu aurretik.

1929ko krisitzarretik berbizteko AEBek ezarri zuten estrategia keynestarra aldarrikatzen du Europarako. Andy Robinson kazetari nekaezinak azken elkarrizketan eskatu dio laburbiltzea Syrizar ondoko hilabeteetan ezarri nahiko duen politika, “Yanis Varoufakis: *‘Vamos a desmantelar la cleptocracia griega’*” artikuluan jaso duena *La Vanguardiarako*. Hona pasarte laburbatzuk:

Europako Banku Zentralak (EBZ) Greziari likideziaren iturria ixteko arriskurik ikusten duzu, Troikaren murrizketak ez onartzekotan?

Beti daude arriskuak, baina ez dut uste EBZk likidezia kenduko digunik zuzenean joan eta Frankfurt, Paris, Berlin eta Bruselako gure bazkide europarrei azaltzen baldin badizkiegu dauzkagun proposamen arrazionalak. Aste batzuetako tregua eskatuko dugu, politika berri horiek haiei azaldu ahal izateko.

Zein izango dira proposamenok?

Lau fase dauzkate. Lehenbizi, oso landutako plana daukagu zorrarekin egin beharrekoaz, orain ez naiz xehetasunetan sartuko. Gero, egongo da programa bart erreforma



Alexis Tsipras Syrizaren garaipena ospatzen Atenasen.

sakonez osatua, guk, eta azpimarratzen dizut guk hori, ezarri nahi ditugun erreformez eta ez Nazioarteko Diru Funtsak edo ELGak edo dena delakoak inposatutakoez. Alegia, erreforma horiek garbi utziko dute ez gaudela prest berriro 2010ean geunden egoerara itzultzeko.

Nolakoa izanen da erreforma?

Elitearen zergekiko immunitatea borrokatuko dugu. Kontua ez da soilik zergetatik ihes egiten dutela, kontua da haien errentaren zati handi batek zergarik eduki ere ez daukala. Kleptokrazia bat dago Grezian, bekatzeko triangelu bat hauez osatua: estatuaren hornitzaileak, bankeroak eta hedabideak. Triangelu hori eraisteko erreformak proposatuko ditugu. Eta beste aldetik, emergentziazko neurriak proposatuko ditugu Greziak bizi duen krisi humanitarioari erantzuteko. Europar guztiei interesatuko zaie neurri horiek aztertzea, bai behintzat Egunsenti Urrekararen

sutea zabaltzen utzi nahi ez dutenek.

Europako liderrek uko egin diote zorrozki Troikaren programa ezertan aldatzea, ez da hala?

Guk proposatu behar dugun memorandum alternatiboa zuhurra da eta arrazionala. Horregatik ezin dut sinetsi Europako Banku Zentralak esango digunik “Aski da, jaun-andreok, zanpatu egingo zaituztegu”. Zor publikoa jaulkiko dugu Greziako estatuaren hurrengo sei hilabeteotako jarduera bermatzeko. Banku greziarrek erosiko dute eta EBZk eskaintzen duen likideziarentzako bermetzat erabalko da. EBZk eman dezakeen likideziarentzako muga finkorik ez da. Irlandaren kasuan 70.000 milioitaraino igo zuten. Euroa zatitzea saihestu nahi baldin badute, behar den mailaraino handituko dute likidezia.

Soluziorik egon liteke Grezia soilik harturik?

Ez. Eurogunean inbertsio bidez ekonomiaren biziberritzea sustatzeko neurriak proposatuko ditugu. Ez bakarrik Greziarentzako, baita ere Espainiarentzako, Irlandarentzako. Syrizar defenditzen du Stuart Holland eta biok prestatu dugun proposamen apala, zeinetan proposatzen dugun Europarako *New Deal* bat oinarritua inbertsio publikoan, enpleguen sortzean eta zorraren berrantolaketan. ■



Aragoiko Gobernuak “katalana” hitza desagerrarazi du lege testuetatik

Kultur Ondarearen Legean baino ez zen agertzen gaur egun “katalana” hitza. Bestelako testu legal guztietatik hitz hori ezabatzeak lanak hartuak zituen. PPko Gobernuak “ekialdeko hizkuntza” deitzen dio, katalanaren arrasto oro suntsitu nahian.

Vilaweb agerkariak azaldu duenaren arabera, 1999tik indarrean zegoen Kultur Ondarearen Legean baino ez zen agertzen “katalana” hitza hizkuntzari buruz aritzeko. 2014ko abenduaren 31n onartu zuten lege erreformaren ondoren, azken arrastoa galdu da. Honela agertzen da orain Kultur Ondarearen Legean: “Gaztelaniaz gain, Aragoiko hizkuntza berezko, jatorrizko eta historiko dira hizkuntza aragoiarrak, eta hizkuntza modalitate horiek autonomia erkidegoaren iparraldean eta ekialdean mintzatzen dira gehienbat”.

Lege testuetatik ezabatzeaz gain, eskoletan ere sartu dute

eskua. Zaragozako Mequinenza herrian, ikasleek jaso dituzten notetan, “katalana ikasgaia” jarri beharrean “ekialdeko hizkuntza ikasgaia” jarri diete. Eskola komunitatea kexatu egin da eta Gobernuak erantzun du akats informatikoa izan dela.

Duela bi urte hasi zuen Aragoiko Gobernuak “katalana” hitza begi bistatik kentzeko bataila eta ordurakoak dira hizkuntzen legean sartu zituzten LAPAPYP eta LAPAO ezagunak. LAPAOk *Lengua aragonesa propia del área oriental* esan nahi du eta “katalana”ren ordeaz erabili dute. LAPAPYPek berriz, *Lengua aragonesa propia de las áreas pirenaica y prepirenaica*, esan nahi du eta “aragoiera”ren ordeaz erabiltzen dute.

Katalanaren eta aragoieraren aldeko herritarrek manifestua sinatu dute Gobernuak hartutako erabakion kontra.

Aitor Montesek Berrian esanak:

“Pablo Iglesias jaun agurgarriari, Podemos-Ahal Dugu alderdiko idazkari nagusiari. Sevillan osasun sistemaren gainean egindako adierazpenen berri jakin izan dut, eta horregatik zuregana zuzentzen naiz, enplazamendu edo eskaintza publikoa egiteko.

Osasun sistema publikoa eta unibertsala aldarrikatu duzu, eta horrekin bat egiten dut. Izan ere, osasun arreta unibertsaltasunaren, elkartasunaren, kalitatearen eta ekitatearen printzipioetan oinarritzen da, besteak beste. Hiritar guztien eskubidea da. Baina ahalketu barik pazienteen hizkuntzari ez diozu garrantzirik eman, eta zuk esandakoaren arabera pazienteak galegoz, euskaraz, katalanez edo gaztelez artatzea bigarren mailako auzia da. Edo beste era batera esanda, gaztelez baldin bada ez diozu inolako arazorik ikusten, hiritarren hizkuntza eskubideak ukatzen badira ere. Jakinik gaur egun hizkuntza gutxituen hiltzunei ez zaiela zerbitzua bere hizkuntzan bermatzen ez eskaintzen, nola esan ahal duzu horrelakorik?”

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Davosek makillajea jarri dio kapitalismoari

SUITZAKO DAVOS HERRI TXIKIA munduko kapitalismoaren elite ekonomiko, politiko eta mediatikoak egindako gailurraren eszenatoki izan zen joan den astean. Biler horretara 2.000 lagun joan ziren, horien artean 40 herrialdeko estatuburuak eta multinazional eta enpresa handietako 1.500 goi kargu. Helburua munduko egoera globala aztertzea izan da eta horretarako hainbat txosten aztertu dituzte, tartean Oxfam erakundeak egindakoa. Honen arabera, biztanleriaren %1 aberatsenak gainerakoek baino aberastasun gehiago pilatu dezake 2016an. Munduan, bederatzi pertsonatik batek ez du nahikoa elikagai, eta 1.000 milioi lagun egunean 1,25 dolar baino gutxiagorekin bizi da. Lanaren Nazioarteko Erakundeak iragarri duenez, munduan enplegua kaskartu egingo da datozen bost urteetan. Krisia hasi zenetik 61 milioi lanpostu galdu dira eta 2019rako beharrezkoa izango da 280 milioi lanpostu sortzea zanga hori estaltzeko. Baina ez dirudi hala izango denik, ihes fiskala handitzen ari baita, batez ere multinazionalen eta enpresa handien artean.

Zein da Davosek eman duen erantzuna? Beti eman

izan duena, ezin bestela izan. Horrela uler liteke zergatik urtetik urtera desberdintasuna, pobrezia eta langabezia handitu egiten diren. Davosen errezeta erabat kapitalista da, itxuraz hain krudela ez dirudien arren. Euren kapitalismoa makillatu nahian dabilta, behartsuen bizkar etekinak jasotzen segitzeko. Davosetik ateratako argazkia esanguratsua da: bankariek eta enpresariak euren politikak inposatzen dituzte; gobernuak politika horiek ezarri; eta fronte mediatikoak bideratu, justifikatu eta manipulatuta egiten ditu iritziz publikoaren aurrean.

Egoera globalari konponbidea aurkitzeko tresna baino, Davos kontaktuak egiteko bilkura da, enpresa handiek segi dezaten negozioak egiten. Farmazia industria, bankariak, aseguru etxeak... horiek dira onura gehien dituzten sektoreak. Kapitalismo horren aurrean, ustezko alternatiba komunista tradizionalak –Errusiakoak eta Txinakoak– ez du ezertarako balio. Ea arduraz jokatzeko sistema justu eta alternatiboa sortzeko gai garen.

Juan Mari Arregi



Nola ulertu oraingo petrolio merkea: bi hipotesi

Petrolioaren prezio merkea da 2015eko gai nagusietakoa. Krisi ekonomikoari irteera erraztuko diola diote batzuek. Ekoizle batzuen amarrua izanik laster bukatuko dela besteek. Duela 12 hilabete 90 edo 100 dolarretan zegoen upela zer dela eta pagatzen da 50 dolarren azpitik asteotan? Hona bi azalpen desberdin agian elkarren osagarriak.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EZ DU LUZE IRAUNGO HAIN MERKE, idatzi du Alexander Reid Rossek *The Ecologist* aldizkariaren gunean. “Petrolioaren prezioaren gainbeherak islatzen du Ekialde Hurbilean eremu ideologiko, politiko eta militarrean jokatzeko den geruza askoko gatazka, eta ez du luze iraunen. Errusia, Iran eta Venezuelari mezu krudela jakinarazi ostean, Ipar Atlantikoko petrolio konpainiak itzuliko dira beren ohiko etekinetera eta proiektu ez-konbentzional arrisksuetara”.

Reid Ross zuzendari ari da *Earth First!* webgunean eta plazaratu berri du *Grabbing Back: Essays Against the Global Land Grab* (Ostutakoa itzuli: Lur lapurreta globalaren kontrako saiakerak) liburua. *The Ecologist*en plazaratu “Petrolioaren prezioa eta deabruaren xantaia” artikuluan laburbildu ditu petrolioaren merkatarze geopolitikaren ikuspegitik aztertzen dutenen argudioak.

Hasteko –honetan ia denak datoz bat– prezio apalok erantzuten diote gehiegizko eskaintzari. 2008tik mundu osoan krisian itota dauden ekonomietan erregai eskaria gutxitu egin denez, eskaintza handiegia dago. Prezioak beheraka hasirik, ekoizleen artean estutasunak nabaritzen lehenak izan dira erregaia garestien sortzen dutenak, *fracking* teknologiarekin ari direnak.

Prezio apalon atzean dauden eta aipatu diren arrazoi geopolitikoaren artean hiru nabarmendu ditu Reid Rossek. Batzuek petrolioaren merkealdi bitxi hau ulertzen dute Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundearen (OPEC ingelesezko sigletan) barruan dauden tirabira geopolitikoaren baitan.

Beste batzuek zehazki azpimarratu dute Errusiaren atzerri politikaren eragina. *The Economist*ek aipatu duen *Red Army signal* fenomenoak: azken hamarkadotan petrolioak hain itxuragabe jaitsi izan dela Errusiak atzerrian militarri esku hartu duen aldi oro.

Eta gero daude uste dutenak AEBak daudela guztiaren atzean, Saudi Arabiak morroi lanak egiten dizkiola; horixe da Vijay Prashad indiarrek deitzen duen “*dispossession by manipulation*”, manipulazio bidezko desjabetzea.

Reid Rossek, aurrekoei arrazoia kendu barik, uste du benetako arrazoa Irak eta Siriako gerran datzala. “Petrolioaren prezioa hondoratzeak Iraki egiten dio kalte: Iraki eragozten dio Estatu Islamiarraren (EI) kontra borrokatzea, eta EI eroso dago Irakeko hirugarren hiria den Mosulen, gutxieneko zerbitzuak eskainiz. AEBek EIren kontrako guduan kurduak lagunduz lortu dute arrakasta handiena Siria eta Irakeko Iparraldean, baina Turkia haserre

Errusiako lehendakari Vladimir Putin eta Saudi Arabiako printze Abdulaziz Al Saud iaz Brisbanen (Australia) G20 herrialdek aza-roaren 15ean burututako biltzarrean. 27an, berriro elkartu ziren Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak (OPEC) Vienan egindako biltzarrean. Bertan proposatu zion, antza, Saudi Arabiak Errusiari petrolio produkzioa murriztea, munduko ekonomiaren geldialdiagatik erregaien eskaria ere asko jaitsia zelako. Askok aipatu da Errusia, Iran eta Venezuela direla kaltetuenak gaurko prezio apalengatik, honek baldintzatu dizkielarik beren barne ekonomien orekak bezala kanpoko hautu geopolitikoak. Gutxiago aipatu da Saudi Arabia, Kuwait eta Arabiar Emirerri Batuak estuki daudela loturik AEBetako energia korporazio erraldoiekin eta baita gobernuarekin ere, prezioak finkatzean bezala Ekialde Hurbila eta Magreb hankaz gora jarri duten gatazketan.

bizian dago Irakeko kurduak elkarlanean ari direlako Siriako partean borrokatzen diren Herri Babesaren Unitateekin (YPG)”. Kobaneko gudua da adibide nagusia.

Turkiak edozer nahiagoko luke bere lurretan kurduen gobernu autonomo bat ikustea baino. Horregatik ari da hain eskuzabal EIrekin. Reid Rossen ustean, kurduak ez badute lortzen EIri bidea moztea, berriro igoko da petrolioaren prezioa, hala interesatzen zaielako ekoizle handiei.

Reid Ross ekologismotik ari baita idazten, mezu garbia dauka petrolio merkeak *fracking*a bezalako teknologia garestiak –jendearen borrokarik gabe– geldiaraziko dituen itxaropena daukatenentzako: laster igoko dira prezioak eta multinazionalak berean segituko dute.

Etekinak 100 dolarretan

Petrolio konpainia handien aholkulari aritzen den Arthur E. Berman geologoak ez du gai honetan epe laburreko kalkulu ekonomikoa baizik ikusten, bazterturik geopolitikaren eta berak “konspiraziokeriak” (*conspiracy theories*) deitzen dituenak. *Energyskeptic* gunean leitu daiteke Bermanen elkarrizketa: “*The Real Cause Of Low Oil Prices*”.

Bermanek bi estatubururen arteko elkarriketa laburrarekin irudika-



askorekin. Teknika horiekin zulatu-tako hobiet petrolioa 90 dolarretan egotea behar dute kapitala erakarri ahal izateko, nahiz eta beren propagandak zabaldu duen 60 dolarretan ere errentagarriak direla. “Prezio horiek aipatzen dituztenek kostuetan ez dituzte kontatzen zulaketa eta petrolioaren transformazioa besterik, gainerako zamak ahazten dituzte”. Eta ezkutatutako kostuetan Bermanek ez ditu kontutan hartzen ingurumenari edo giza osasunari egindako kalteak edo beste asko, zuzenean konpainien jardueri dagozkienetz ari da.

Zenbaitek azken hilabeteotan ikusi du *Peak Oil* famatua gezurtatzeko aukera. Bermanek, aldiz, zalantzarik ez dauka: “Askok uste dute AEBetan petrolio produkzioa handitu izanak erakusten duela *Peak Oila* oker zegoela. Baina petrolioaren gailurrak ez du esan nahi petroliorik gabe geratzea. Esan nahi du lehengo ohiko petrolio ezagunaren ekoiztea hasten denean urritzen, etorkizuneko hornidurak iritsiko direla zailtasun handiagoko iturrietatik edo garestiagoetatik”.

Aditu honen ustean petrolio konbentzionalaren produkzioak goia joa du 2005-2008 urteetan. AEBetan fracking gasak gailurra gaindituko du bost-zazpi urte barru. Eta ondorengo hamarkadetan funtsezkoa izango da gas naturala, Errusia, Iran, Qatar eta Turkmenistanek erruz daukatena. Tarte horretan, irakurle, adi petrolioa berriz 100 dolarretan noiz jarriko. ■



tu du mamia: “Saudi Arabia elkartu zen Errusiarekin OPECen azaroko bilkuraren aurretik eta proposatu zion Errusiak produkzioa gutxitzen baldin bazuen berdin egingo zutela Saudi Arabiak, Kuwaitek eta Emireriek. Errusiak esan zuen ‘ez’ eta Saudi Arabiak esan zuen: ‘O.K., menturaz beste ez duzue berdin erantzungo sei hilabete barru’”.

Epe laburreko kalkuluen ondorioa besterik ez da Bermamentzako. “Saudiak onak dira dirutan eta aritmetikatan. Aukera mingarri baten aurrean zeuden, esan nahi baita, edo dirua galdu produkzioari eutsi eta upela 60 dolarretan salduz, edo bi milioi upel atera merkatutik are eta diru gehiago galduz. Bietan galtzekotan, kalterik gutxiena ematen

duen bidetik abiatu dira. Gero bigarren mailako arrazoiak baldin badaude, AEBetan frackingezko petrolioa sortzen dutenei min egitea, edo Iran eta Errusiari min egitea, hori ere ondo zetorkien, baina funtsean diru aferra izan da”.

Bermanen iritzirako petrolioa berriro garestitzen hasiko da aurtten, ziurrenik OPECeko herrialdeak ekainean bildu eta produkzioa laburtzea erabakiko dutenean.

Inork uste izan badu prezioen apaltze honekin frackingean zentratutako konpainiek lagako dutela beren lana, oker dabilta Bermanen ustez. Petrolioa igotzearekin hasiko da berriz frackingaren sukarra.

Berman kritikoa da frackingaren errentagarritasunaz harrotzen diren





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Zorraren auditoria, Grezian eta hemen

ILUSIOA da edozein aldaketarako akuilu nagusia eta Syrizaren garai-penak zerbait ekarri badu horixe da, ilusio haize bolada ederra Troikak menderatzen duen Europako gotorlekura. Ilusioaren aurretik, alabaina, pobrezia, etsipena eta etorkizun eza norbere larrutan jasatea ezinbestekoa bide da bestelako aukerei ateak irekitzeko.

Horixe izan da Grezian gertatutakoa eta orain ikusteko dago miseria barreiatu den Europako beste herrialdeetan Greziakoak zein eragin izango duen. Espainian, Portugalen, Italian... pobrezia eta etsipen maila sakonagoa beharko da erantzuteko edo hangoak balio dezake hauek lehenago erreakzionatzeko? Datozen hila-beteetan lehen erantzunak ikusiko ditugu, bereziki Espainian, eta Grezian moduan, Podemos indar politiko berrian finkatuko dira Europa osoko begiradak.

Alexis Tsiprasek ate berriak ireki ditu Grezian eta orain gudua-ren ordua da. Europako demokrazia ereduak erakusten du herritarren sostengua lortuz gero, egiazko alternatiba aurkezten duen indar batek eskura dezakeela gobernu; orain ikusi beharko da, Syrizar horretarako egiazko aukerarik uzten zaion, indar mediatiko eta ekonomiko nagusiak greziar oligarkiaren esku daudenean. Troikak bereziki lagunduko duen Greziaren oligarkia indartsuaren aurka egin beharko du lehenik Tsiprasek; eta, aldi berean, Troika bera- ren aurka.

Oligarkiaren borrokan bere pribilegioen murrizketari ekin beharko dio, aberastasuna era justu-agoan banatzeko modu bakarra; eta Europar Batasunarekin bere zor publikoaren negoziatzia bide- ratu beharko du (240.000 milioi

euro, BPGren %175), zati bat kitatuz eta beste bat epe luzera bideratuz. Tresna interesgarri zein ezin- bestekoa jarri beharko du abian Syrizak horretarako, zorraren auditoriarena. Hego Amerikan egin dira halako esperimentuak, bereziki Ekuadorren, baina ez Europan. Zorraren errealitatea herritarren aurrean biluzteko aukera bikaina da.

Kasu honetan epaileek bankuen alde egin dute. Zorraren auditoriak zer esango luke?

Denak adierazten du Europar Batasunak bere alde malgua era- kutsiko duela oraingoan, batez ere beste herrialde batzuetan gisa bereko fenomenoak saihesteko. Nola eta noraino? Inork ez daki, baina unea laborategikoa da, Greziakoak egoera berriak ireki ditza- keelako maila guztietan. Irekiko al ditu!

ZOR kontuetan, hala ere, eskan- dalua ez da estatuen zor publiko- ra mugatzen, gizarteko esparru askotan ikus liteke nola sistema ekonomiko eta politikoak babes- ten duen bankuen jarduera, hauen jokamolde ugari moralaren eta herritarren duintasunaren aurkakoak izan arren. Etxebizi- tzen hipotekak eta etxegabetxeak izan daitezke ezagunenak, baina azpiegitura handien eraikuntzara- ko instituzioek lotutako zorpe- tzeetan ere ez da eskandalu gutxi, izan itzaleko bidesarien formula- pean egindakoetan edo bestela- koetan.

Honako hau, adibidez, gertu- ko adibide bat da: azpiegitura

handi bat eraikitzeke euskal insti- tuzio batek mailegu handi bat eskatzen du. Baina hauteskun- deen ondorioz, gobernu aldaketa eta proiektu aldaketa dator azpie- gitura horrekiko, eta jadanik insti- tuzioak ez du mailegu hori guz- tia behar. Baina, finantza sistemak ondo lotuak ditu halako egoerak, bai mailegu handiak eskatzen dituzten azpiegitura proiektu erraldoiak babesteko, eta baita bankuek diru etekinak bai ala bai lor ditzaten ere. Horre- gatik, baldintza bat jartzen diote instituzioari: dirua emango dizut, baina dirua erabili ala ez, zuk interes bat ordainduko didazu hainbat denboran. Ados, diote agintariak.

Baina proiektu berria bideratu duten agintari berriek halako diru- tzarik behar ez dutenez, saiatzen dira birnegoziatzen maileguaren baldintzak: ez, ez da posible diote bankuek. Eta adostasunik ez dagoenez epaiketara doa auzia. “Ez —dio epaileak— bankuek arra- zoi dute eta zuk —instituzioari— adostutakoa ordaindu beharko duzu”.


Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioan gertatutakoa da. EAJk Gipuzkoako Diputazioa kudeatzen zuenean GHK-k maile- gua eskatu zuen Zubietako erraus- te planta egiteko eta *swap* formula- pean lotu Caixabank eta Banestorekin. Ia 60 milioi euroko kostarekin interesetan, urtez urte GHK-k ordaindu behar duena, berdin dio mailegua erabili hala ez. Kasu honetan epaileek bankuen alde egin dute. Zorraren audito- riak zer esango luke?

Bai, gauza bat da hau- teskundeak irabaztea eta oso bestelakoa sis- tema aldatzea. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



Atxaspi Hotela

Bi lagunentzako
relax gava
astean zehar

Bittirika kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

STM San Telmo Museoa



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Capsula Solar secrets

5 CD opari

www.hotsak.com

4



Argia kamiseta

Kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2445. Argia)

ATXASPI

- Izaro Sudupe Altuna (Azkoitia)

SAN TELMO

- Mikel Escudero Aizpurua (Deba)
- Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Sabina Arruabarrena Sukia (Donostia)

EKAINBERRI

- Andres Alberdi Gorostiaga (Elgoibar)
- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
- Ana M. Zubiarrearteria Olañeta (Eibar)

AQUARIUMA

- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)
- Garbiñe Intxausti Altuna (Urruñoa)
- Hilario Berasategi Arrieta (Idiazabal)

ILLIMANI 4246

- Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia



Ondo trebatuta, etorkizuna gurea da



**Aurrematrikula:
otsailaren
2tik 13ra**

**Euskal Eskola
Publikoa**

Online aurrematrikula:
www.hezkuntza.net

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO